

Auzolanaren kultura
Iraganaren ondarea, orainaren lanabesa,
etorkizunaren giltza



Jasone Mitxeltoarena

AUZOLANAREN KULTURA

Iraganaren ondarea, orainaren
lanabesa, etorkizunaren giltza





Hernaniko
Udala



OIARTZUNGOC
UDALA



LASARTE-ORIAKO
UDALA



Usurbilgo Udala

LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2011ko iraila

© JASONE MITXELTORENAK
© JON ZABALETAK
© TXALAPARTAK

TXALAPARTA ARGITALETXEA E.M.L.
San Isidro 35, 1. A
78 Posta-kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 703 934
Faxa 948 704 072
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Arte4c

INPRIMAKETA
GRÁFICAS LIZARRA S.L.
Tafallako bidea, 1 km.
31132 Villatuerta - Nafarroa

ISBN
978-84-8136-627-3

LEGE GORDAILUA
NA. 2880/2001

Auzolana, iraganaren ondarea;
kolektibitatean antolatutako antzinako
bizimoduaren lekuko bizi gisa gure
egunetaraino iritsirik, altxorra baita. Hala
ere, orainean erabilgarri den heinean
izanen da baliozko altxorra, eta, beraz,
har dezagun auzolana lanabes. Hala egin
dute hainbat ekimenen bultzatzaileek
gure egun hauetan, auzolana
etorkizunaren giltza dela ulertuta;
tunel ilunetan barrena zailtasunez joan
beharrean, har dezagun bide argitsuari
atea irekiko dion giltza. Auzolana,
etorkizunaren gako.

ESKERRAK

Anjel Rekalde eta **Gabriel Valin**, egitasmo honen proposamena helarazi eta emandako laguntzarengatik, eta baita **Antxon Mendizabal** ere, egitasmo honen bultzatzaile izateagatik;

Mikel Sorauren eta **Humberto Astibia**, liburu honetan jaso diren gaien ildoak jorratzeko berebizikoa izan baita zuen ekarpena; Humberto, zuri bereziki, moldatzeko lana hartzeagatik.

Jose Mari Esparza, hemen jaso ditugun hainbat informazio helarazteagatik;

«**Beltza**» eta **Leticia Galeano**, euren herri diren Txile eta Paraguaiko *auzolanen* berri guregana ekartzeagatik;

Aida eta **Kepa Fdz. Larrinoa**, auzolanaren gizartea ezagutzeko modua non bilatu adierazteagatik;

Patxiku Irisarri, **Xabier Torres** eta **Aritz Otxandiano**, hurrenez hurren Etxalarko, Elizondoko eta Otxandioko alkateak, zuen herrietako berri emateko arreta eskaini diguzuelako.

Pello Apezetxea, Etxalarko berri ematen duen liburu zoragarria osatu eta guztion esku jartzeko lanaz gainera, lan honetarako hainbat gogoeta eskaintzeagatik;

Irune eta **Itsaso Elizagoien**, Baztan-Bidasoaldeko *Ttipi-ttapa* aldizkariaren Etxalarko berriemaileak, zuen argazkiak liburu honetan erabiltzea uzteagatik;

Edurne Elizagoien eta **Maite Irisarri**, *Etxalarko xoko eta jendeak* liburuan bildutako hainbat irudi helarazteagatik. Horiekin batean, irudien jabe diren familiei, baimena emateagatik.

TEDER elkarteko **Jose Luis Echavarri**, Lizarraldeko auzolanaren eta Auzolan sariaren berri emateagatik, eta **Pedro San Emeteriorekin** harremanetan jartzeagatik; zuri, Pedro, zuen herriko egitasmo erraldoi eta zoragarria ezagutarazteagatik;

Hernaniko **Haizea**, lan honetan baliagarri izan diren zenbait gogoeta argigarri eskaintzeagatik;

Julio Villanueva, gogoeta interesgarriez gainera, esperientzia baten xehetasunak ezagutarazteagatik;

JosAnton Artze, liburu honetan jaso ditugun olerki hunkigarri eta zirraragarriak gure esku jartzeaz gainera, zurekin izandako mintzaldi aberasgarriengatik;

Juan Antonio Urbeltz, zure lanaren bidez euskal herri-kultura berraurkitzeko aukera eskaintzeaz gainera, horiek gure lan honetan jaso ahal izateko eskaini diguzun arretarengatik; eta zure seme Mikeli, lan hau hobetzeko pista argigarriengatik;

Lucio Tabar, Iruñeko *Bira beste aldera* egitasmoaren berri emateagatik; EHNE Nafarroako **Mikel**, kooperatibei buruz hainbat gauza erakusteko arreta eskaintzeagatik;

Nicola Foroni, lan honetan bildu ditugun hainbat informazio eta baieztapen emateagatik eta Zeraingo egitasmoa erakusteagatik;

Mikel Ozaita eta bere ikaslagunak, Olatz Arozena, Donetz Iradi eta Aitzpea Lertxundi, Uztaro Kooperatibari buruz egindako azterketa-lana gure esku jartzeagatik;

Mixel Berhokoirigoin, zuen esperientziaren berri emateko hain harrera ona egiteagatik;

Nabarraldeko **Ana Telletxea** eta **Gurutz Zilbeti**, irudiekin laguntzeagatik

Idoia, darizun bizipoz-indarra guztioi lagungarri zaigulako; baita alde praktikoan ere, lan honetan izan ditugun arazo tekniko guztien konponbidea zure eskutik etorri baita;

Silbi, Iñaki, Ana eta **Mina**, amatasuna eta liburu honen eraketa uztartzen lagundu didazuelako: izeba-osaba ezin hobeak zarete! Zuri ere bai, Ekhine, Berako liburutegian laguntzeagatik!

Arreko auzoak (Apa, Lenci, Ikeriko, Aizea, Fermin... Alberto eta Arantxa): «Auzolanean posible dela» eta egunerokoan *auzo* harremanak zeinen garrantzitsuak diren erakusteagatik;

Miren, izeba zoragarria izateaz gainera, krisialdi guztietan ondoan sentitzen zaitudalako.

Gurasoei, naizen bezalakoa zuek egin nauzuelako, eta lan hau egiteko eta gainerakoetarako beti laguntzen nauzuelako; Eskerrik asko, bihotzez.

Azkenik, eskerrik asko **Igor** eta **Aia**, ondoan izateagatik. Igor, zure ekarpena berebizikoa izan da, ongi dakizunez.

Aia, zuretzat aipamen berezia, lan hau idazteko baliatu dugun denborak zuretzat izan behar baitzuen.
Irakurtzen duzunean, hala izatea merezi izan duela sentitzea nahi nuke.

Gu ez bagara, nor izanen da?
Orain ez bada, noiz izanen da?
Herriok ez bagara, nor izanen da?

Giza garapena ez da automatikoa, eta ez da ezinbestean gertatzen. Orain eta hemen geroa iritsia dela onartu beharra daukagu. Orainaren larritasun gorriari erantzun behar diogu. Bizitzak eta historiak bere baitan duten igarkizunean beranduegi ibiltzeko arriskua daukagu. Denbora geldiarazteko eskatu dezakegu oihuka, etsipenak jota, baina denborak entzungor egingo digu eta ziztu bizian jarraituko du aurrera.

Martin Luther King Jr.

Hemendik aurrera, zer: kaosa ala komunitatea?

Giza-garapenaren txostena 2007-2008

Nazio Batuen Erakundearen Garapenerako programa.

Auzolan pertsonen oinarrizko beharrianak Garapen Komunitarioaren bidez asetzea helburu duen egitasmoa da. Gizarte eraldaketaren ikuspegitik abiatzen da, eta askapena lortu nahi du; askapena, norbanako, kolektibo, gizarte eta nazio gisa, Euskal Herrian.

Erreferentzia marko honen baitan, gisa honetako egitasmoak sustatu nahi dira: ekoizpen eta kontsumo ekologikoen kooperatibak, trukea, tokiko txanponak, energia buruaskitarsuna lortzeko kooperatibak...

Auzolanaren Kultura liburu honek Euskal Herri osoan *Auzolan* taldeak sortzeko hazia izan nahi du, datorrenari –petrolioaren gailurrak, klima aldaketak eta ekologiaren

kolapsoak Kapitalismo Globala hondoratuko dute– aurre egin ahal izateko prestakuntzan lan eginen duen Herri Mugimendu bat antolatzeke asmoz.

Auzolan Elkarteak sortu berri da, eta eskuartean duzun liburu hau izan da bere lehendabiziko ekimena. Auzolanaren jarduera ezagutarazteko beharra ikusi da, garai berri hauetako erronkei aitzin egiteko baliagarria dela iritzita. Laster, www.auzolan.info gunean izanen da honen berri.

Auzolanaren jardueraren azalpenetik abiatuta, lan modu horrek adierazten duen sistema zabalago bati buruz mintzatzeko aukera ikusi dugu: *auzo* hitzaren adierak komunitate bizitza jakin baten berri ematen digu, historikoki *batzarrean* oinarritutako gizarte antolakuntza berezi bat eratu duena, berezko Zuzenbidean oinarritu –Pirinioetako/Nafar Zuzenbidea– eta horren arabera bizi izan dena, herrialde gisa egituratu dena –Nafarroako Erresuma–, mundu-ikuskera berezia sortu duena eta garai berriei egokitu zaiena.

Izan ere, auzolana ezin uler dezakegu auzoen arteko harremanak ezagutu gabe, auzolana indarrean izan den –eta, hein batean, oraindik ere baden– gizarte antolakuntza aipatu gabe eta auzolana ahalbidetu duen mundu-ikuskera edo pentsamolde berezia ulertzen saiatu gabe. Eta horiek guztiak aldatu edo gainbehera egin badute ere, bizi-bizirik ageri zaigu auzolana: antzinako itxuran kasu batzuetan, eta guztiz eraberrituta bertze gehienetan.

Eraberritzeko ahalmen hori ikusita, auzolanak aukera aunitz eskaintzen duela ohartu gara, eta hori hala ulertuta aurkezten dugu hemen, garai berri hauetako erronkei erantzuteko lanabes gisa.

Irakurketaz gozatzea espero dugu; batzuentzat interesgarriak diren zati batzuk bertzeentzat pisutsuak izan daitezke eta alderantziz... Horiek arinago irakurri eta pasarte atseginagoez gozatzea gomendatzen dugu. Eta gozagarri ez ezik, gogo-piztaile izatea ere nahi genuke.

1. ATALA

AUZOLANA ETA AUZO-KOMUNITATEA
OINARRI DUEN GIZARTEA

1.

AUZOLANA ETA ADIERAZTEN DUEN AUZOTASUN INSTITUZIOA

AUZOLANAREN GAIA LANTZERAKOAN, DATUEN BILAKETA sakon bat egitea interesgarria izanen litzatekeela uste dugu, hau da, Euskal Herri osoan dauden lekukotasunak zuzenean biltzea eta tokian tokiko artxiboak arakatzea. Horretarako genituen mugak direla eta, gure bilaketa azalekoa izan da, eta gehienbat bertze batzuek jaso eta jorratu dituzten datuekin osatutako lanak ekarri ditugu atal honetara. Horiek ezagutzerakoan, auzolanak lan egiteko modu bat baino aunitzez ere gehiago adierazten duela konturatu gara. Izan ere, auzolana bizitzeko modu jakin bati eta gizarte antolakuntza berezi bati lotzen zaie, *auzotasunaren* instituzioan oinarritzen direnak biak ere.

Antolakuntza horren ezaugarrien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: herri mailako kontuak *Batzarraren* bidez kudeatzen dira, komunitatearen zentzua berebizikoa da eta, oro har, gizarteak kohesio handia du. Horregatik, auzolanaren definizioa eta eskura genituen adibiderik adierazgarrienak jasotzeaz gainera, lan modu horrek adierazten duen sistema zabalago hori ere islatzen saiatu gara, guk *Auzolanaren Kultura* deitu duguna, hain zuzen ere.

Lan honen hurrengo ataletan azalduko dugu zein diren gizarte antolakuntza horren berezitasunak, gizarte hori osa-

tzen duten herritarren mundu ikuskera berezia eta gaur egungo euskal gizartean bizirik dirauten antolakuntza sistema horren ezaugarrien zantzuak. Izan ere, gaur egungo Euskal Herrian bizi-bizirik diraute elkartasunak, auto-antolakuntzarako gaitasunak eta gisako ezaugarriek:

Nazioarteko elkartasunean oinarritutako Gobernuz Kanpoko Erakundeen kopurua edo odol eta organo emaileena Europako handienak dira gurean, elkartasun horren adierazgarri; elkarlanerako eta antolakuntzarako gaitasuna ere agerian gelditzen da euskararen aldeko, presoei elkartasuna adierazteko edo bertzelako ekitaldien antolakuntzan, auzolan erraldoi gisa antolatzen diren horietan, eta ikastolak edo kooperatibak ere elkarlanean auto-antolatzeko joeraren –eta gaitasunaren– adierazle dira.

Ohiturazko auzolana gainbehera joan edo desagertu bada ere, bertze hamaika itxura hartuta, euskal gizarteko dinamika aunitzen oinarrian dakusagu *Auzolanaren Kultura*. Halaber, jada abian diren ekimenak indartu eta hedatzeko aukera dagoela ere ikusten dugu, baita ekimen berriak sortzekoa ere. Eskuaratean dugun lan hau horretarako baliagarria izatea nahi genuke.

1.1. Zer da auzolana?

Auzolana –edo *auzalana*, Nafarroako toki aunitzetan– *auzo* eta *lan* hitzen elkarketa da, eta komunitate bateko kideen arteko elkarlana adierazten du. Herriaren –komunitatearen– alde musu-truk edo doan egiten den lana da; bertako kide izanik, herriari eskaintzen zaiona. Hagitz antzinakoa da lan egiteko modu hori, eta gaur egun bizirik dirauten antzinako kulturetan aurki ditzakegu auzolanaren baliokideak, bakoitza bere berezitasunekin, argi dago: Afrikako herri gehienetan, adibidez, komunitatean lan egiteko ohitura dute, eta txileko maputxeen komunitatean ere, bada gure auzolanaren baliokidea, *mingaco* erraten dio-

tena, hain zuzen ere. Antzinakoak diren eta gure egunetan antzinakotasunaren zantzuei eusten dieten herrietan kolektibitatearen zentzua barneratuta dago, eta horixe adierazten du, hain zuzen ere, auzolanak.

Euskal Herrian aurkitzen ditugun *herri-lurrak* –*komunalak*– lurra kolektibo gisa partekatzearen adierazpena dira: artzainek elkarrekin erabiltzen dituzte mendietako larreak, eta historian, denbora luzez, herri-lurrak jabetza pribatuari nagusitu izan zaizkio. Gaur egun herri-lur horiek gehienbat mendi goietako larreetan eta oihanetan badaude ere, XIX. mendeko bigarren zatira arte nekazari lurrek –eta, oro har, herrietako lur gehienek– erabilera kolektiboa izan dute. Lurra, ondasun nagusia, kolektiboarena izan da, eta hori hala izan dela jakiteak auzolanaren gisako jarduera kolektiboak ulertzen laguntzen digu.

Auzolana hitza aztertzerakoan, *auzo* hitzaren erranahia zehaztu beharrean gaude. Gaur egun, herrien banaketa-unitateak edo banaketa horietako bizilagunak izendatzeko erabiltzen bada ere, kontuan izan behar da XIX. mendearen bigarren zatira arte, *auzoa* edo *bezinoa* etxe-jabeari deitu izan zaiola, eta eskubideak nahiz betebeharrak dituen herritarra adierazi nahi duela. Euskal Herriko hainbat tokitan agertzen da, idazki historikoetan, *auzoaren* eta *bizilagun soilen* arteko ezberdintasuna. Azken horiek herrian bizi baina etxearen jabe ez zirenak lirateke, eta lehenda-bizikoak, berriz, herrian ez bizi izanda ere, bertan etxea zutenak.

Gizartearen antolakuntzan oinarrizkoa den figura zen, beraz, *auzoa*, eta Euskal Herriko ohiturazko gizartean hainbertzeko garrantzia izan duen *Etxearen* ordezkari gisa uler dezakegu. Horrekin batean, kontuan hartzekoa da Euskal Herriaren berezko gizarte antolaketan auzokoak izan duen garrantzia, batzuetan senidetasun harremanei gailendu izan baitzaio. Hori aintzat hartuta, hobeki uler dezakegu jorratzen ari garen auzolana: *auzoek* osatutako komuni-

tateak bere betebeharrei erantzuteko izan duen modua da auzolana; horregatik, komunitate horren antolakuntza bereziaren ezaugarri gisa uler dezakegu, eta horretan datza bere garrantzia.

Herritarren parte-hartzean eta euren arteko elkartasunean oinarritutako antolakuntzaz mintzatzea zilegi zaigu, beraz. Nabarmentzekoa da auzolana ohiko jardunbidea den gizartean, norbanakoaren arteko kohesioa –talde kohesioa– handia izan dela, bertzeak bertze, dantzaren bidez landu den talde kohesioa¹. Gure egun hauetan, bakoitzak berea egiteko joera zertaraino heldu den jakinda, interesgarria iruditu zaigu gizartearen kohesioak eta norbanakoaren arteko elkartasunak ezaugarritzen duen sistema hori. Aitzinerago zehaztuko ditugu gizarte antolakuntza berezi horren nondik norakoak; lehendabizi, auzolana zer izan den eta gaur egun zer den azalduko dugu.

Gure egunetaraino iritsi den auzolana komunitateak erregulatzen du –historikoki, haren kideek osatutako herrietako Batzarrak, eta geroago, udalak–. Ohiturazko lege gisa funtzionatu du Euskal Herri osoan, baina Nafarroan, adibidez, herri-administrazioei buruzko legediak ere jasotzen du, eta herrietako ordenantzen bidez arautzen da. Arabako hainbat herritan ere ordenantzek agintzen dute auzolanaren betebeharra. Kasu horietan derrigorrezko bihurtzen da, eta egin ezean, zigorrak edo isunak ezartzen dira.

Auzolanera deitutako egunetan ezin bada joan, ordezkoa bidali edo bertze moduren batean egin behar zaio

1. Hala jakinarazten digu Juan Antonio Urbeltz antropologo eta herri-kulturaren adituak. Urbeltz dantzaria da, urte luzez Argia taldearen zuzendaria izana. Praktikan dantza lantzeaz gainera, bertzeak bertze, antzinako dantzak lehengoratzeko hainbat ikuskizun antolatu ditu bere emazte Marian Arregirekin batean; adierazgarriena, segur aski, *Axuri Beltza* izanen da. Horrez gain, hamaika lan argitaratu du dantza abiapuntutzat hartuz euskal kulturaren nondik norakoak azaltzeko.

ekarpena herriari. Herriarentzat musu-truk egiten diren lanak auzolantzat har daitezke, eta, beraz, hala egiten dutenek auzolan egunetan ez dute parte hartu beharrik izanen. Materiala, eta kasu batzuetan jan-edanak, Udalak jartzen ditu.

Herritar guztiek erabiltzen dituzten bideak eta bertzelako azpiegiturak konpontzeko egin izan dira –eta egiten dira– auzolanak. Horien artean, hainbat lekutan *handiak* eta *ttikiak* bereizi izan dira, lana egiteko beharrezkoak diren lanabesen arabera (aitzurak, segak edo igitaiak behar izanez gero, *ttikiak* izanen lirатеke, eta *handiak*, berriz, gurdiak, edo geroago, traktoreak, behar izanez gero).

Hainbat herritan, *mindegiak* zaindu eta bertan hazitako zuhaitzak mendian, herri-lurretan, landatzeko lana ere auzolanean egin izan da. Izan ere, oihana garrantzitsua izan da Euskal Herriko leku gehienetan: horiek ustiatzea izan da herri aunitzen ekonomia jarduera nagusietakoa (etxeetarako eta azpiegituretarako egurra ateratzeko eta ikatza egiteko, edo egurra saltzeko).

Urtean zehar hainbat auzolan egun zehazten dira: bi, lau, edo gehiago, eta bakoitzean zeregin jakin bat egiten da; horiez gainera, presazko auzolana ere deitu daiteke, ezbeharren bat gertatu eta zerbait konpontzeko beharra agertuz gero. Herriarentzat egindako lanaz gainera, auzoek elkar laguntzeko ere erabiltzen dute lan mota hori; hala nola, etxeren batean ezbeharren bat gertatzean edo langile kopuru handia eskatzen duten lanak egiteko.

Derrigorrezkotasuna aipatu dugu, garai batean, segur aski, Euskal Herriko leku guztietan herritarren betebeharrak gisa funtzionatzen baitzuen, baina kontuan hartzekoa da azken mendeetan aldatu egin dela auzolana: XIX. mendeko korrante liberalek berezko gizarte antolakuntzaren elementu nagusiak indargabe utzi zituzten, eta ondotik izan diren bertze hainbat aldaketaren ondorioz –bertzeak bertze, Industria Iraultzak ekarritako gizarte eredu berria– ohituraz-

ko auzolana gainbehera etorri da, eta derrigorrezkotasun hori desagertu egin da.

Hala ere, herri aunitzetan berreskuratu egin behar izan dute elkartuta lan egiteko modu hori, baina, kasu horietan, derrigorrezkoa izan beharrean, borondatezko gisa ageri zaigu. Dena dela, Nafarroan indarrean dagoen legediaren arabera, herri-administrazio guztiek dute aukera –udalek nahiz kontzejuek– ordenantza bidez herritarren eginbehar gisa auzolana ezartzeko.

Nabarmenezkoa da, herritarren betebehar gisa ezarrita egon denean, auzolanera ez joatea zigortu egin izan dela, eta isunak ezarri izan direla. Orain, aldiz, herritarrari aukera ematen zaio auzolanera joan beharrean ordainketa egiteko. Hala ere, erran dugunez, hainbat herritan –Lizarra aldean, adibidez– erabat borondatezkoa da deialdietara joatea.

Auzolana, *auzalana* (bertzeak bertze, Sakanan eta Tafallaldean), *artelana*, *orzalana* (Lizarra aldean) edo *aizelana* izenak aurki ditzakegu Euskal Herri osoan. Nafarroan, *auzolan* hitzaz gainera, *concejil* edo *prestación personal* ere –azken hori hagitz berria litzateke– agertzen dira dokumentu ofizialetan, eta Arabako zenbait tokitan *vereda* deitzen zaio auzolanari (Lizarra aldean ere, Arabatik hurbil dagoen eremuan, izen hori erabiltzen da).

Herri bakoitzeko jarduera nagusia artzaintza, nekazaritza, industria edo merkataritza izan, auzolana edonon erabili izan da, eta herriak era batera edo bertzera eraturik egonda ere, mendialdean zein behealdeko herrietan ere auzolana egin izan da. Hala erakusten du Bizkaiko edo Zuberoko mendialdeko herrixketan eta Nafarroako Erriberako herri handiagoetan sistema bera erabili izanak. Erriberako daturik apenas lortu badugu ere, 1900. urtean Murillo el Fruton kontzejuak zabaldutako udal-ohar edo *bando* batean ageri zaigu: Lursail berriak herritarren artean zozketatzeko egitasmoa zela-eta, zozketan parte hartu nahi zuen auzo bakoitzak

hemezortzi urtez gorako langile bat eremuak moldatzeko lanera bidaltzeko betebeharra ezarri zuen kontzejuak, aipatutako udal-oharraren bidez².

* * *

Galizan eta Asturiasen *andecha* izeneko sistema dago, eta Leonen, berriz, *hacendera*. Auzolanak bezala, garai bateko lan sistema dira, eta gaur egun gainbehera egin badute ere, oraindik ere zenbait lekutan bizirik diraute. Landa eremuetan indarrean dagoen jarduera da, eta auzolanean bezala, herritarrek herriko azpiegiturak moldatzeko egiten duten lana da. Etxeetako nekazaritza lanak auzoek elkarrekin egiten dituzte, edo herriarenak diren eraikinetan moldatze lanak ere *andechan* egiten dira.

Herrian norbait lanerako ezinduta dagoenean ere, auzoek horiei laguntzeko *andecha* antolatzen dute. Astur Zuzenbidean jasotako instituzioa da *andecha*³. Kantauri aldeko lurraldeetan eta Gaztela eta Leon iparraldeko zenbaitetan *hacendera*⁴ eta hainbat izen hartuagatik ere, funtsean sistema bera den lan moduak aurki ditzakegu. Zenbait kasutan, herritarrek erregeari edo jauntxoei egin beharreko ekarpenarekin nahasten dela ikusi ahal izan dugu, baina bilakaera hori aintzat hartzen dugun arren, jatorriz herri-

2. Datu hau *¡Vivan los comunes! Movimiento comunero y sucesos corraliceros en Navarra (1896-1930)* lanetik jaso dugu (Jose Miguel Gaston, Txalaparta, Tafalla, 2010), eta honela dio: «[...] el 25 de noviembre de 1900, el alcalde dictaba un bando en el que comunicaba que al día siguiente comenzarían los trabajos para preparar las suertes que se habrían de repartir en los sotos del común. Cada día de los siguientes, serían llamados sesenta vecinos para que pusieran un peón de más de dieciocho años que acudiera al tajo. “Los vecinos –decía el bando- tienen la obligación de salir a trabajar de concejil el día que se les avise, pues de lo contrario perderían el derecho a la suerte”».

3. *Andechari* buruz gehiago jakiteko, ikus honako lotura hau: <http://es.wikipedia.org/wiki/Andecha>

4. *Hacenderari* buruz, berriz, honako hau: http://www.cuadrosleon.com/la_hacendera.thm

tarren borondatezko ekimena dela eta gaur egun bizirik dirauenetan ere hala dela ulertu behar dugu.

Pirinioen magalean kokatzen diren bertze herri batzuetan, Aragoian eta Andorran, erraterako, antzeko jarduerak egin izan dira, eta leku batzuetan oraindik ere egiten dira, bertze izen batzuk hartzen badituzte ere. Europan, berriz, Irlandan *coor* deitzen dioten auzolanaren gisako lan modu bat dagoela jakin ahal izan dugu. Europatik kanpo, hasieran aipatu bezala, Amerikako jatorrizko herrien *mingaco* edo *minka* jarduerak aurkitzen ditugu, eta Afrika ekialdeko *harambee*, bertze batzuen artean.

Gaur egun, garai batean izandakoarekin alderatuz gero toki gutxitan irauten badu ere, badirudi Euskal Herri gehienan sustraituta dagoen ideia dela auzolanarena; euren herrietan edo hirietan bizirik ezagutu ez badute ere, aunitz dira auzolanera jotzen duten gazteak, lan egiteko modu hori aldarrikatzen dutenak, eta ohikoa da gazteteetan edo gazte asanbladen jardueretan. Herrietako edo hainbat hiritako auzoetan bestak eta kultura ekitaldiak antolatzerakoan ere, elkarlanera jotzen da, eta auzolanean altxatzen dira beharrezko azpiegiturak, edo gisa horretan antolatzen dira zereginetarako lan txandak.

Herriarengan hain sustraituta izanik, herri-ekimenetan agertzeaz gainera, zeregin handiagoetara ere eramana izan da auzolana: Anoetan (Gipuzkoa) herritarrengan komunitate kontzientzia piztu nahi izan dute *Auzolan Kulturala* abiatuz; unibertsitateetako hainbat adituk edo gizarte gaietan lanean dabiltzanek auzolana eredutzat hartzen dute; elkarlanaren eta ingurumena zaintzearen aldeko balioak biltzen dituzenez, hezkuntza sisteman txertatzeko proposamena ere egin da, eta, era berean, gure egungo gizartearen hain hedatuta dauden Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan ere, badira auzolanaren filosofia oinarri eta abiapuntu duten proiektuak eta tresnak.

Kasu horietan, auzolanaren praktika informatikoa komunitate birtualen antolaketan gauzatzen da. Ildo horre-

tan, azpimarragarriak dira, batez ere, Wikipediaren eta software librearen garapenean zentratzen diren komunitate birtualak.

Horiek guztiak aitzinerago izanen ditugu mintzagai. Lehendabizi, gure egunetaraino iraun duen ohiturazko auzolanaren nondik norakoen berri eman nahi dugu atal honetan.

1.2. Auzotasunaren garrantzia: «Auzo ona, adixkide ona»

Euskaldunon etnografiari buruzko lanetan ikasi ahal izan dugu *auzotasunak* izaera berezia eta berebiziko garrantzia izan dituela gure herrian. Etxearen baitan kokatzen da sendia, familia; *Etxea* –bere lurrekin eta ondasunekin– bereizi ezina da, eta haren biziraupena norbanakoaren interesen gainetik ezartzen da. «Suak» erraten zaie etxeei, (gaztelaniaz *foguera* edo *fogueral*), herrian bakoitzak egin beharreko ekarpenak zehazterakoan. Gizarteko harremanetan parte-hartzerakoan, *Etxearen* ordezkaria izanen litzateke arestian aipatutako *auzoa* edo *bezinoa*; hala nola, herriko Batzarrean. Baina,aldi berean, etxe baten eta bertzearen arteko harremana ere biltzen du *auzo* izateak. Harreman horren garrantzia adierazterakoan, adierazgarriak dira Juan Carlos Etxegoienek *Orhipean* lanean bildutako erranairu zahar hauek:

«*Urrutiko parientia baino leenago da auzua*» (Gipuzkoa); «*Senidea baino auzoa beinago*» (Bizkaia); «*Auzo ona, adixkide ona*» (Nafarroa); «*Aizo hon dienak, begi lo hon*» eta «*Aizo hon dienak goiz hon*»⁵ (Zuberoa), «*Barridea, aurridea*» (Nafarroa)...».

Komunitateak –herriak– eratzterakoan, senidetasunak baino auzotasunak garrantzia handiagoa izan zuela baieztatzen

5. «Auzo on duenak, egin beza lo ona»; «Auzo on duenak, goiz on»; «Auzoa, senidea».

tzen da *Euskaldunak. Euskal Etnia* bilduman, Manuel Lekuonak *Euskal Institutuzunak* atalean (bildumaren lehen-dabiziko liburukian⁶). Hala adierazten du, aipatutako iturriaren arabera, herri honen izaerak:

«Guretzat, aaidetasuna baiño leenago eta sakonago dago Euskalerraren izaeran, beste gauza bat: «Auzo», auzotasuna. Auzotasunak elkartu ginduzan gu, gure Euskalerra hau poliki-poliki sortzeko; odolak baiño areago auzoak, aaidetasunak baino beiñago auzotasunak».

Atal honetan aipatu ditugun erranairuak, Gipuzkoari eta Bizkaiari dagozkienak, baieztapen horren adibidetzat aipatzen ditu Lekuonak.

«Etxeak berak bakarrik erantzun ezin dien arazoei egoki erantzun ahal izateko sortua da auzoa, eta etxeak bakarka osatu ezin dituen hutsune eta beharrak osatzen dituen neurrian indartzen da auzoa». Hala azaltzen du Gurutze Arregik *Auzoari* buruz lehentxeago aipatu dugun bilduman argitaratutako lanean (hirugarren liburukian). Arlo horiek ekonomikoak eta materialak izan daitezke, baina baita espiritualak ere, beherago ikusiko dugun bezala. Auzoen arteko harremana eta elkarlana ez dira noizbehinka gertatzen diren ekin-tzak; bizitza osoan eta belaunaldiz belaunaldi irauten dute.

Auzoa izatea «etxe batekoak bestekoen ondoan edo hurbil bizitzea bakarrik ez da; horretaz gainera, elkarrekin era bereziko hartu-emanak izatea da, antzinako ohituraren ohituraz egin-behar eta eskubide bihurtu diren hartu-emanak edukitzea», Gurutze Arregik Jose Migel Barandiaranen hitzak gogora ekarriz azaltzen duenez.

Ohiturazko araudiaren arabera ezartzen dira eginbe-harrak eta eskubideak, eta geroago idatzita agertuko dira (Foruetan) urte aunitzez ahoz transmititu izan ziren aritzeko moduak; hala nola, auzolana bera. *Auzotasuna* instituzio

6. *Euskaldunak. Euskal Etnia* bildumak zazpi liburuki ditu.

gisa ageri zaigu, eta bere indarra ondasunak partekatzean datza, lurrak elkarrekin erabiltzean, adibidez. Herri-lur horien erabilera zehazteko, hainbat modutako elkargoak sortu izan dira: partzuergoak, patzeriak edo *elkarrekikoak*, kofradiak eta bertze hainbat.

Auzolana gehienbat bideak moldatzeko egiten zela erran dugu lehenago; auzolan horiek auzoka antolatzen ziren –auzo bakoitzekoak elkartu, eta euren eremuko bideak moldatzen zituzten–, eta auzolanerako deialdi horiez gain ere, egunerokoan ere auzo mailan –eta, beraz, auzoen elkarkidetzan– funtzionatzen zutela erran dezakegu: norbaitek etxea eraiki eta etxaldea osatu nahi izanez gero, auzoek ematen zituzten abereak, hainbat lehengai, baita eraikitze-lanetarako laguntza ere; eguneroko lanetan edo lan jakinetan –artoa mihaurtzen edo sagarrak biltzen, adibidez–, besta edo erritu ekitaldietan eta, oro har, bizimoduaren arlo guztietan, auzoak elkarrekin aritzen ziren.

Intervención y vínculo (Kepa Fernandez de Larrinoaren edizioa) liburuan Mikel Errazkinen «Komunitate baten herrigintza. Anoetaren bilakaera gizarte tradizionaletik industrialera xx. mendean» lanean, halaxe azaltzen du egileak:

«Elkartze moduak herritarren arteko harremana zuen oinarri eta komunitate bateko partaide izatearen kontzientzia eta sentimendua zen elkarren artean elkartzera bultzatzen zituen arrazoi nagusia; harremanak onak edo txarrak izan, herritarrak behartuta zeuden. Bestetik, gizarte egituraketa horretan auzokoen figura oso garrantzitsua zen, guztiz eskubidedunak baitziren. Auzokoen berdintasun printzipioaren arabera zegoen eratua. Gaur egun arte mantendu den auzolana auzokoez osatutako gizarte antolamendu kolektibo haren aztarna izan daiteke; baita auzokoen berdintasun printzipioa ere, izan ere, auzolanerako deituak ziren eta elkartzen ziren auzoak betebeharrak eta eskubide berak baitituzte».

Aunitz dira *auzoak* betetzen dituen eginkizunak. Hala nola, etxeren batean ezbeharren bat gertatuz gero,

auzoa izan da, ohituraz, lehendabizi ohartarazi izan dena. «Larritasun handiko gaixoaldietan, auzo hurrenak dei egingo die sendagileari, notarioari, apaizari e. a. Azken sakramentuak edo Elizakoak gaixoari ematerakoan, auzoak laguntzen dio apaizari», azaltzen du Arregik.

Auzoen arteko harremanen erakusgarri, hildakoaren etxean *gaubeila*⁷ egiten zen, eta horietan, behin ere ez ziren falta izaten jan-edanak; «Garaian garaiko zenbait aitoren adierazten duenez, *gaubela* horiek ez ziren beti dolu eta samintasun girokoak. Hildakoaren aldeko otoitzak bai, baina baita bestelako hizketak eta jardurio bixiagoak ere egiten zituzten noski. Hildakoaren etxeko gaubelak direla eta, zenbait ateraldi jostagarri zabalduak dira ahoz-aho: horrek adierazten duenez, galdurik zioten heriotzari seriotasun giroa», Arregik jakinarazten duenez. Hori azaltzen du erranairu zahar honek: «Hil da gero, salda bero».

Heriotza-errituetan, hilkutxa etxetik elizara bizkarrean eramaten zutenak –Etxalarren jaso dugunez, «Difuntu bidea» erraten zitzaion– edota elizan hildakoari *argizaia* nahiz *olatak*⁸ eskaintzearen arduradunak auzoak izaten ziren. Etxekoek, berriz, heriotza-errituei amaiera emateko, jan-edanera gonbidatzen zituzten senideak eta auzoak, elizaren hurbileko tabernaren batean. Ohitura horrek hein batean bizirik dirau zenbait herritan.

Jaiotzak zirela-eta, auzoko emakumeak jaioberriaren etxera joaten ziren, amari gozokiak eta haurrarentzako arropak ematera eta laguntzera. Euskal Herriko hainbat tokitan ohitura horrek *Andrakuste* eta antzeko izenak hartzen ditu. Zenbait lekutan, hamabortz egun iragan ondotik, ama berria

7. Gaubeila edo *gau-bilera*, Arregik Baztanen jaso zuenez.

8. *Argizaia*, *argizari bilduma* edo *argizaiola* egur baten inguruan bildutako argizari ziria da, heriotzetan kandela gisa erabiltzen dena. *Olata*, berriz, auzoek hildakoen omenez egiten zuten ogi berezia da, argizaiarekin batean elizan, hildakoaren etxeko hilobian, jartzen zena.

izaten zen auzoko emakumeak bildu eta otordua antolatzen zuena. Ezkontza-ospakizunetan auzoek elikagaiak emateko betebeharra zuten; hala nola, «anega laurden bat gari eta oilo bat», Arregiren lanean azaltzen denez.

Aipatu dugun *Euskaldunak* bilduman eta bertze etnografia-lanetan ere –*Nosotros, los Vascos* bildumako «Mitos, leyendas y costumbres» lanean Jose Duesok auzotasunari buruz idatzitakoan, adibidez– auzoek etxeko lanetan elkar laguntzeko zuten ohitura jasotzen da. Lan horiek batzuetan *ordeak* izaten ziren; hau da, batean etxe edo baserri baten-tzat lanak egiten ziren, eta hurrengoan bertzearentzat. Auzo bakoitzak bere lana eskaintzen zuen, ondotik ordainetan jasotzeko.

Landa ereiteko prestatzeko *laiaketa* –laiaz lurra puska-tzea–, *igitaitea* edo *gari-ebatzea*⁹, gari-jotzea, arto-zuriketa, *goruetan* –harigintzan– artilea lantzea eta bertze hainbat ziren lan horiek, guztiek ere jende kopuru handia eskatzen baitzuten. Aunitzetan, herri-lurrak erabiltzen ziren landak eta baratzeak egiteko, eta gari-jotzeko larrainak ere *komunak* izaten ziren maiz. Arto-zuriketa eta artile-lantzea neguko gauetan egiten ziren, afalondoan, eta auzokoak elkartuta, solasaldi ederrak egiteko aukera izaten omen zuten. Ardimoztea, belar- eta iratze-garraioak (*belarketa* eta *iratzeketa*) eta *egurketa* ere *auzoek* elkarlanean egiten zituzten.

9. Igitaitea edo gari-ebatzea uzta ebakitzeari deritzo. Lehen igitaiarekin edo segarekin egiten zen, gerora makinen bidez, baina, hala ere, auzoak zeregin horretarako elkartzen segitzen zutela dio Arregik. Bere lana 1976an argitaratua da.



Auzoen arteko gaubeilak eta arto-xuriketa edo arto-mihaurtze lanak.

Orde horiez gainera, *behar orduetako lanak* deitu izan direnak ere egiten zituzten auzoek: etxeren batean umeak zituen alarguna edo adineko jendea bakarrik bizi izanez gero, edota ezbeharren bat gertatu eta etxeko lanak ezin eginik geldituz gero, auzoek beren gain hartzen zituzten lan horiek. Azken kasu horietan, ordainean deus ere espero gabe egiten zen lan, etxekoek jan-edanak ematen bazituzten ere. Lanaz gainera, hainbat kasu jakinetan, auzoen artean materialen ekarpena ere egiten zen.

Bizkaian *lorra* deitu izan zaio ekarpen modu horri, baina jarduera bera bertze hainbat herritan ere ohikoa izan da. *Zimaur lorra*, *bildots lorra* edo *zur lorra* agertzen dira Bizkaiko ohituretan: etxe batean berriki bizitzen jarriak izanez gero, edo bertzelako arrazoiengatik gai horien faltan zeudenean, *auzoen* artean bilketa egiten zuten. Auzo bakoitzak gorotz gurdikada bat ematen zuen, etxe horrek barazterako edo belardietarako ongarria izan zezan. Artaldean osatu nahi izanez gero, auzo bakoitzak bildots eme bat ematen zuen. Egurra, berriz, ezbeharren baten ondorioz etxean hondatutakoak moldatzeko ematen zen. Kasu horietan, ohikoa zen jatekoa ere ematea, artoa edo garia, adibidez.

Arregi lurren izaera komunalari buruz ere mintzo da, horiek erabiltzeko *auzoa* izan behar dela azalduz:

«Giza-talde hauentzat oinarrizko bizibidea guztientzako auzo-lurrak izan dira. Lurra Euskalerrian hasieratik guztientzakoa izan da gehienbat, orain bertan aztarnak bizirik dauzkagunez. Ia oraintsu arte horrela iraun dute, gainera, landu gabeko lur sailik gehienek, hau da, goietako larreak eta mendiak. Herri lur edo auzo lur ziren sailetako gozamina, artzaintzat izan da. Baina gozamen hori izateko, auzotar edo herritar izan behar zuten bidez, eta halakotzat hartuak gainera»¹⁰.

1.3. Auzolanean egindakoak

Auzolanen artean bideak konpontzeko, mantentzeko edo berritzeko lana nagusitzen da; Euskal Herri guzian hala da, antzinako denboretatik gaur den eguneraino. Auzoko etxeak elkarren artean, eta etxeak herrigunearekin nahiz herri-lurrekin lotzen dituzten bideak dira elkarlanean moldatzen direnak. Udalak edo Kontzejuak –tokian tokiko erakundearen arabera– jartzen ditu lan horretarako gaiak, eta lanabesak, berriz, gehienetan auzoek beraiek eramaten dituzte. Bizkaian *bidegintze* erraten zaie lan horiei; Goierrin *bide eittia* eta Enkarterrin *a caminos*. Araban auzolana errateko erabiltzen duten *vereda* ere bidegintzarekin lotuta dago. Aipatzekoa da bide bakoitzak, ohituraz, funtzio jakinak izan dituela, kasu batzuetan, behinik behin: hala erakusten dute *eliz-bideak*, *kurtzebideak* (gurutzebideak), *burdibideak* eta antzeko bertze izendapenek.

10. Auzo-lurren gozamina edo erabilera Nafarroako Udalerrien Administrazioaren Araudiak jasotzen zituela dio Arregik. Gaur egun araudi horren oinordeko den 6/1990 Foru Legeak auzo-lur edo herri-lur horiei buruzkoak zehazten ditu.

Ur-bideak, ur-askak, iturriak eta putzuak garbitzea, eta zubiak eta ur-biltegiak moldatzea ere, hainbat lekutan auzolanean egindako ohiko zereginak izaten ziren –edo izaten dira–. Mendiko artzain-etxolak moldatzea, artzainen arteko auzolanean egin izan da, irekiak izanik izaera komunala baitute.

Elizak eta basilizak eraikitzeke eta moldatzeko lanak ere auzolanean egin izan dira ohituraz. Eliza herrigunean dagoen eraikin publikoa dela erran daiteke; hau da, herri osoari zerbitzu egiten diona. Basilizak, ordea, Arregiren lanean agertzen denez, auzoarekin lotuta daude. Hark dioenez, herrialdeko auzune gehienek dute euren basiliza, gainerako eraikinen artean kokatzen dena. Horietako gehienek eraikitze-datak eta egileen izenak ez dira ezagutzen, baina antzina auzoetako parrokia gisa funtzionatu zutela uste da.

Herri-lurretan eraiki ohi zirela nabarmentzen du Arregik. Gogoan hartzekoa da basiliza aunitz –gehienak edo denak ez badira– kristautasuna ezarri aitzinetik bereziak edo «sakratuak» ziren tokietan eraiki zituztela, eta, beraz, erran liteke herritarrek euren lehenagoko erritu eta kultuekin segitzeko aukera izan zutela horietan. Gure egunetaraino iritsi da basilizekiko herritarrek erakusten duten ardura, eta auzoen esku segitzen du, kasu aunitzetan, horiek zaintzeko lanak.

Auzolanean eginen direnen artean maiz ageri zaigun lana herriko bestetarako karrikak txukuntzea da. Etxalarren (Bortzirriak, Nafarroa iparraldean), ohituraz, urteko auzolane-tako bat herriko besten aitzineko asteburuan egin izan da, eta 2010. urtean berreskuratu egin zen ohitura hori. Lizarra aldean, ia herri txiki guzietan antolatzen da bestetarako herria txukuntzeko auzolana.

1.3.1. Galdutako jarduera batzuk

Gaur den egunean erabat galduta dauden *kare-egitea* eta *gari-jotzea* auzolanean eginen ziren hainbat herritan. Kare-

labeak –*karobiak* edo *kisu labeak* deituak– kasu aunitzetan auzoenak izaten ziren, eta auzo-bideen bazterretan kokatzen ziren. Lurraren ongarrizat, abere-etxolak garbitzeko edo etxeen paretak xuritzeko hain erabilia zen karea egiteko, hainbat lagunen beharra izaten zen, eta horregatik, auzoek txandaka egiten zuten labearen zaintza.

Ogia jo –*garia jo*– eta alea lastotik bereizteko lanak larrainean egiten ziren. Hainbat lekutan etxe bakoitzak bere larraina izan zezakeen, baina auzo eta herri gehienetan, herri-lurretan kokatzen ziren, eta *eultze* –*gari-jotze*– lana auzoek elkarrekin egiten zuten. Larraina garbitu egin behar izaten zen erabili ahal izateko, eta batzuetan harrizko paretak inguratzen zuenez gero, hori ere konpondu beharra izaten zen; horiek ere auzolanean egiten ziren.

Euskaldunak bilduman jasotzen denez, galdutako bertze ohitura bat herriko bideetatik abereen gorotza biltzea zen, eta hori ere auzolanean egiten zen. Izan ere, karrikak garbitu bidenabar, gorotza ongarritarako erabiltzen zen. *Larreongarriya* deitzen omen zitzaion, Jose Mari Satrustegik Urdiainen (Sakana) jasotakoaren arabera, eta enkantean saltzen zen.

Herri-lurretan oihanak osatzeko lana ere auzolanean egin izan da. Ia auzo guztietan –herria banatzen zen eremu bakoitzean– izaten ziren *mindegiak*; hau da, zuhaitzen haziak eriteko eremu bereziak, mendietako xokorik onenetan kokatuak (gatzelaniaz *vivero* erraten zaie). Harrizko harresiz inguratzen ziren, abereak eta bertzelako animaliak ez sartzeko, eta egoera onean zaintzeko, auzo guztiak elkarlanean aritzen ziren.

Urtean behin mindegiko landareak mendian landatzen ziren, herri-lurretan, bi-hiru metrokoak egiten zirenean. Hala jaso dugu Etxalarren. Duela zenbait urte herri horretan urtean bi auzolan egiten ziren: udaberrian bideak konpondu eta antzeko lanak egiten zituzten, eta negu aldera, berriz, *mindegikoak*. Gaztaina, *bagoa* eta haritza landatzen ziren, gehienbat.

Bizkaian *landara imintzea* deitu zaio lan horri, eta pagoak, arteak eta *aretxak* landatzen ziren. Herrialde horretan, *kofradiak* kudeatzen zituzten, kofradia auzo-elkargo modua baita. Arratia haranean, adibidez, joan den mendearren hasieran desagertu zen jardunbide hori, herri-lurrak auzoen artean banatu eta jabego pribatua izatera iragan zirenean.

1.3.2. Auzuneko eskolak Bizkaian

Auzuneko eskolak ere auzolanean eginak izaten dira. Bizkaian aurkitzen ditugu Auzuneko eskolak, 1920an Bizkaiko Aldundiak hartutako erabakiarekin eraiki zirenak. Luis Elizalde eta Eduardo Landeta euskaltzaleek eman zuten eskola horiek sortzeko ideia, garai hartan euskal ikastetxeak sortzeko abian zen prozesuaren barruan. Eskola horiek baserri-auzoetan eraiki ziren, herriguneetan zeuden eskoletara joateko arazoak zituzten haurrentzat. Tokian tokiko bizilagunek eraiki zituzten, eta kasu batzuetan materiala ere eurek jarri zuten. Euskaraz zekiten irakasleak aritzen ziren horietan, eta izaera autonomoa zuten.

Hala ere, urteak joan ahala, hasierako helburuak aldatu egin ziren, eta 1931. urtean Eusko Ikaskuntzak salatu zuenez, eskola horiek, euskara zaintzeko izan beharrean, hizkuntza hori desagerrarazteko tresna bilakatu ziren. Ez dakigu zehazki zer gertatu zen bilakaera hori izateko. Egoera horrek okerrera egin zuen 1936ko altxamenduarekin: handik aitzinera auzuneko eskolak Madrilgo Gobernuaren eskuetara iragan ziren, eta debekatu egin zuten horietan euskara erabiltzea. Baserri auzoen eta herriguneen arteko komunikabideak hobetu ahala, eskola horiek gainbehera egin zuten. Hala azaltzen du Gurutze Arregik gorago aipatutako bere lanean.

1.3.3. Otsoen eta oti intsektuen aurka egiteko auzolanak

Tafallaren historiari gainbegiratu bat ematerakoan, hiri horretan otsoei eta landak hondatzen zituen oti intsektuen izurriari (gaztelaniaz, *plaga de langosta*) aurre egiteko *auzalanak* maiz antolatzen zirela ikusi dugu. Ohiko auzolanen artean halakorik aurkitzen ez denez, horiek aipatzea merezi duela uste dugu.

Jose Mari Esparzaren *Tafallaren Historia* lanean agertzen denez, 1414ko apirilean otsoak eta azeriak harrapatzeko *auzalanerako* deialdia egin zuten. Arazoari aurre egiteko herritarren arteko elkarlana eskatzen bazuen, animalia horien kopurua handia zela pentsatzekoa da. 1505eko ekainean Kontzejuak gisa guztietako jendea bildu, eta Erriberri eta Tafalla arteko eremuan otsoak eta otso-kumeak hiltzera joateko agindua eman zuen. 1507an ez omen zen otsoak hiltzeko *auzalanik* antolatu, Kontzejuak horretan ibiltzen zen Aragoiko gizon bat ordaintzeko asmoa baitzuen. 1590ean, berriz ere *auzalanera* deitu zen, inguruko herrietakoekin batean otsoak hiltzera joateko. Ohikoa omen zen zeregin horretarako hainbat herri elkartzea.

Oti intsektuaren izurria arazo benetan larritzat agertzen da aipatutako lanean. 1500. urteko abenduan, prozesioa antolatu zen intsektu horiekin amaitzeko, baina, ageri denez, hori ez zen nahikoa izan, eta herri guzia *auzalanean* atera zen izurriari aurre egitera. Hurrengo hilabeteen berriz ere Kontzejuak etxe bakoitzeko herritar bat izurriari aurre egitera ateratzeko agindu zuen. Hilabete batzuk geroago, etxe bakoitzetik bi edo hiru lagun ateratzeko eskatu zen. Urte bereko azaroan arazoak bere horretan zirauen, eta hamar herritarreko talde bakoitzetik bat lan horretara ateratzeko eskatu zuen Kontzejuak.

1501eko apirilean idatzitako agirian, maindire eta mantekin oti intsektuaren aurka joateko agindua agertzen da, oihal gehiagoren bila Iruñera joan behar dutela gaineratuz. 1687ko uztaillean, izurriaren aurka mezak eta prozesioak

antolatzen segitzen zuten, *auzalanak* ez baitziren aski. Bi urte geroago, prozesioak eta *auzalanak* egiten segitzen bazuten ere, izurri berri bat sortu zela jakinarazten da.

Bertze herri batzuetan ere kalteak eragiten zituzten hainbat animalia akabatzeko auzolanak egiten omen ziren; Berueten (Basaburua Ibarra, Nafarroa) satorrak eta azeriak akabatzeko egin izan direla jaso dugu. Han ordaindu egiten zen auzolan egun bakoitza, eta animalia horietako bakoitzarengatik ere ordainsaria ematen zen. Horretarako, harra-patutako animalien buztanak aurkeztu behar ziren.

Ordaindutako auzolanaren bertze adibide bat Etxarri Aranatzi buruzko testu batean aurkitu dugu. *La Nueva Covadonga Insurgente. Orígenes sociales y culturales de la sublevación de 1936 en Navarra y el País Vasco* (Javier Ugarte Telleria, 1998) lanean 1936ko gerra sortu zenean Etxarri Aranatzen zegoen egoera agertzen da, bertze aunitzen artean, eta garai hartan bertan auzolanak nola funtzionatzen zuen azaltzen da: etxe bakoitzari urtean sei lanegun zegozkion, horietako bi idi-pareak lagunduta.

Aldi bakoitzean sei-zortzi laguneko talde txikiak aritzen ziren, eta ezkilak joz deitzen zen auzolanera. Auzolana egitearen saria egur-lotea eta abereen azpiendako orbela izaten ziren. Egun osorako ateratzen ziren, eta *juerga* izaten omen zen. Herri osoak egiten zuen auzolana, gaztetxoenetatik hasi eta adinekoetaraino. Zuhaitz landaketak egitea edota idien laguntzaz bideak eta errekek garbitzea izaten zen. Auzolan egun bakoitzarengatik bi pezeta ordaintzen omen zen, eta horretarako erabilitako idi-pare bakoitzarengatik, lau pezeta.

Auzolana herriaren alde doan egiten den lana den arren, hainbat herritan une jakin batzuetan ordaindu egiten zela jaso dugu. Dirudienez, herritarren ekonomia ahula laguntzeko egin izan dira ordainketak. Herriak jan-edanak eskaini izan ditu, lehenago aipatu dugunez; Etxalarren, adibidez, sagardoa eta ogia banatzen omen ziren auzolanean aritutakoen artean.

Atal hau amaitzeko, auzolana musikaz lagundu izan den kasu baten berri emanen dugu. Juan Antonio Urbeltzen *Bailar el Caos* liburuan jaso dugun datua da, eta hala dio: Oartzunen, XVIII. mendearen erdialdean pilotalekua moldatzeko lanean auzolanean omen zebiltzan, eta zeregin horretan musikak lagunduta ari omen ziren. Ez dugu antzeko kasu gehiagorik jaso, baina Urbeltzek ulertzera ematen duenez, ez litzateke harritzekoa izanzen garai batean hainbat zereginetarako musikaren laguntza erabili izana; erritmo jakin bati segituz eta musikak ematen duen harmonia lagun, lan egiteko modua eraginkorragoa dela baieztatu dezakegu.

1.4. Bazkunak, auzo-elkargoak

«Euskal Herri osoan barna begiratuta, auzoan aurkitzen dugu gizarte eta politika antolaketaren lehenengo egitura, eta bera zeharo ohiturazkoa da. Eta hau neurritz handi eta zabal diren udaletan ageri da batez ere. Oinarrizko gizarte erakunde hauek izen ezberdinak dituzte Euskalerrian zehar, ondoren ageri denez: Kofradiak (Bizkaia), Kontzejuak (Bizkaiko Enkarterrietan, Nafarroan...), Zendeak (Nafarroa), Sindikatuak edo Mendiko parrokiak (Zuberoa)».

Hala azaltzen da *Euskaldunak*. *Euskal etnia* bilduman. «Izen eta axaleko itxura ezberdinak badituzte ere, barru izakeraz berdinak dira», eta guztien eginkizuna ohiturazko arauen arabera herri-ondasunak auzoen artean kudeatzea da. Kasu aunitzetan arau horiek ordenantzetan jasoak izan dira, eta administrazio-izaera dute: bilerak eta deialdiak egiten dira, kontu-liburuak erabiltzen dira eta batzordeak osatzen.

Bizkaian *kofradiak* arduratzen ziren *landara imintzeaz*, baselizen kudeaketaz, egurra, iratzea eta *orbela* (lurrera eroritako hostoa) banatzeaz edo bidegintzaz. *Basalkatea*, *basazaina* eta *maiordomoa* karguak hautatzen ziren, kofradiaren funtzioak betetzeko arduradun gisa. Euskal Herriko bertze

leku batzuetan kofradiak eliza kontuekin lotzen dira, baina betiere auzoen elkargo gisa funtzionatzen dute. Hala gertatzen da Nafarroan (Etxalar, Ezkabarte, Tafalla...) eta Arabako mendialdean (Arana ibarra...).

Kontzejuak Enkarterrin «parrokia bereko auzoek beren intereseko gaiak jorratzeko eliz-atarian egiten dituzten bilerak» direla jakinarazten du Vicario y de la Peñak, Euskaldunak bilduman jasotzen denez. Nafarroako *kontzeju irekiak* –batzarrak–, berriz, egun indarrean daude oraindik –euren gaitasunak gainbehera egin badu ere– eta «antolaketa oso berezi eta bitxia duen erakundea da, Udalerri txiki baten antzekoa. Bere eginkizunak, auzoko-ondasunen ardura eramatea batetik, auzoaren eta goragoko erakundeen artean bitartekotza egitea bestetik, dira», Arregik bere lanean zehazten duenez. «Udalaren lehenengo oinarria da kontzejua, eta, Udalaren barruko zati delarik ere, Udaletik bereiz ere bere kontura jokatzeko du», egileak gaineratzen duenez.

Nafarroan bertzelako egiturak ere aurkitzen dira, hala nola *quiñones* Zaraitzun, *kuartelak* Baztanen, *arrabal* deitutako auzoak eta *zendeak* Artaxoan eta Larragan. Azken horiek ibar gisa edo herrien arteko elkarketa-sistematizat hartu izan badira ere, antzinako auzo-elkargoak izanen lirateke, Jose Maria Jimeno Jurioren arabera: «Euskaldunen artean *zenteak* omen ziren lehen eta *centena* gaztelarren artean; eta izatez, ez Haran eta ez Udal, zenbaitek esan duenez; haran eta unibertsitateen zati bat izan da, betiere eginkizun zehatzak dituen», Arregik artaxoarraren hitzak gogoratuz dioenez. Artaxoan zendea bakoitza Kontzejuan ordezkatua izaten omen zen, eta auzokoen artean aukeraturako zinegotzi hori arduratzen zen auzolanak deitzeaz, horiek ikuskatzeaz eta zigorrak ezartzeaz.

Auzoen arteko bertze elkargo mota bat elkar babesteko osatutako *ermandadeak* lirateke. Abeltzainen arteko ermandadeak dira ezagunenak. Aseguru-entitate moduan funtzionatu izan dute: Auzoren bati ezbeharra gertatu eta

abereak gaixotu edo hilez gero, gainerako kideek dirutan ordaintzen dute kaltea. Nafarroan eta Araban helburu bera dute hainbat lekutan osatutako *kofradiek*, baina kasu horietan hileta-kostuei aurre egitea da euren funtzioa.

Etxe errean ermandade edo batzordeak ere aurki ditzaiegu, egun kasu batzuetan indarrean daudenak, etxeak erretzean izandako galerei erantzuteko asmoz. Anoetan (Tolosaldea, Gipuzkoa) badela jakin ahal izan dugu, baita Etxalarren ere (Bortziriak, Nafarroa). Pello Apezetxearen *Etxalarren historiako zenbait jakingarri lanean* ageri denez, 1828. urteko akta batek honela dio:

«Oroitezinezko ohitura da, laudagarria gainera, etxeren bat erretzen denean luzatzen zaion laguntza: teila ematen zaio, garraio-lanetan dohainik laguntzen zaio, eta hargin eta zurginek ere egun batzuz kobratu gabe lan egiten dute. Horrela zoritxarra jasandakoek hats hartzen dute, eta denentzat da mesedegarri, herria manten dadin».

Udalak etxe horiek berreraikitzeke egurra eman ohi zuen. Geroago, 1891 urtean, Sute Elkarteak sortu zen herri horretan, egun indarrean dagoena; kide diren etxeek, suteak itzaltzera joateko edo horiek eragindako kalteei aitzin egiteko kideen laguntza jaso zezaten eratu zen. Egun suteak izaten badira ere, garai batean horiek gertatzeko arriskua handiagoa zen: etxeetako azpiegiturak egurrezkoak izatea, belar idorra eta gisako gaiak etxe barnean gordetzea edo argia egiteko sua erabiltzea dira horren arrazoi nagusiak.



Etxe bat erretzen zenean, auzoek laguntzen zituzten kaltetutakoak.

Bertzelako elkargoekin segituz, Nafarroa Beherean eta Zuberoan artzainen arteko antzinako elkargoak aurki ditzakegu, *partzuerrak* deituak. Arregik bere lanean dioenez, ardiak mendiko larreetara igotzerakoan sortutako lanak partekatzen zituzten: denen artean igotzen bazituzten ere, goian geratzen zirenak lau izaten ziren, ardiak jezteko bi, eta bertze bi etxolako lanak egiteko. Txandaka aldatzen joaten ziren bakoitzaren zereginak.

Txotx deitzen zaio artzain bakoitzak zaindutako artaldeari, eta hirurogei buruko unitatea izan ohi da. Gaur egun antzinako sistema horren zantzuak aurki ditzakegu, Zuberoan, batez ere, artzainak, hiru-lau laguneko taldeak osatuta, elkarrekin aritzen baitira mendiko eta etxolako lanetan.

Amaitzeko, aipatu behar dugu herrien artean izandako elkarkidetza ere. Herriek entitate autonomo gisa funtzionatu izan dute, gaur egun baino autonomia maila handiagoa baitzuten, beharrianak herrian bertan ase ahal izateko buruaskitasunak eta goi-erakundeekiko harremanak noiz-behinkakoak bakarrik izateak erakusten digutenez. Baina herrien arteko elkartasuna garrantzitsua zela ageri zaigu: lapurren edo otsoen aurka egiteko, sarritan egiten zen eskualdeko hainbat herriren arteko elkarlana, eta herri horietako ordezkariak urtean zehar bilera aunitz egiten zituzten; Etxalarri dagokionez, Bortzirietako eta inguruko herrietako ordezkariekin egiten zituzten bilerak; XVI. eta XIX. mendeetan, urtean hamar izan ziren, banaz bertze.

Larrialdi handiko uneetan bilera gehiago egiten ziren, hala nola, gerra denboretan. Gaur ere antzeman dezakegu herrien elkarkidetzarako nolabaiteko joera: Bortzirietan euskararen aldeko, zaborrak kudeatzeko eta Gizarte Zerbitzuak eskaintzeko mankomunitateak daude, Euskal Herri osoan badiren bezala.

2.

ARTZAIN-MUNDUTIK, KOMUNIKAZIOEN ARORA

ATAL HONEN IZENBURUA AUKERATZERAKOAN, aintzat hartu dugu euskal gizartea artzain munduarekin lotzen duen topikoan erortzeko arriskua genuela, baina auzolanak Euskal Herriaren historian izan dituen garapena eta bilakara adierazi nahi izan ditugunez, Neolito garaiko lehendabiziko komunitateen sorrerarekin lotzen dugun «Artzain-mundua» eta egungo gizarte-eredua izendatzeko erabiltzen den «Komunikazioen edo Informazioaren Aroa» izendape-nak aukeratu ditugu.

Auzolana garai batean erabat zabaldua zegoen jardue-ra izan dela erran dugu, eta hala izan da berriki arte. Hala ere, azken hamarkadetan ohiturazko auzolanak gainbehera egin du: bertzeak bertze, ekoizpen modu berriak ezarri eta bizimodu-eredua erabat aldatu denez, ohiturazko auzolana ia desagertzeaz egon da. Hainbat herri txikitan bizirik iraun du; bertze leku aunitzetan berreskuratu egin nahi izan dute –edo behar izan dute–, eta Euskal Herri gehienez, itxura hagitz ezberdinak hartu ditu. Dena dela, bizi-bizirik dirauen sistema eta balioa da auzolanarena. Beraz, izenburu honekin, ohiturazko auzolanak «Komunikazioen Aroa» deitzen zaion gure egun hauetara iristeko bidean ezagututako eraldaketen berri eman nahi dugu.

Ohiturazko auzolanak 1960ko hamarkadatik aitzinera gainbehera egin du ia erabat, orduan zabaldutako industrializazio- eta urbanizazio-prozesuak bertzelako gizarte-eredua ekarri baitu. Hau erraterakoan, honakoa ohartarazi behar dugu: gure herrian data horretatik aitzinera ezarritako industrializazio berriari buruz ari gara; izan ere, ez da zuzena ordura arte industriarik gabeko herria izan garela pentsaraztea. Industriak Euskal Herriaren historian garrantzi handia izan du; Burdin Aroko lehendabiziko meatze eta burdinolen jardueretatik hasi, eta azken hamarkadetako industriagintza berriraino.

Beraz, euskaldunena, artzain, nekazari eta arrantzale herria izateaz gainera, industria herria ere izan dela baieztatu dezakegu, eta baita merkataritza herria ere; Erdi Aroan, batez ere, loratu zen merkataritza Europarekin izan diren salerosketa-harreman oparoek ezaugarritzen dute, eta horren erakusle dira Iruñea, Gasteiz eta Lizarra hiriak, bere garaian merkataritza gune garrantzitsuak izanak¹¹.

Eta industria-jarduera nagusia izan den herrietan ere auzolana indarrean egon da; Arrasaten eta Eibarren, adibidez, sistema horrek berdin funtzionatu duela erran beharrean gaude.

Hori horrela izan zen, industrializazioak euskal gizartea erabat aldatu zuen arte. Antzinako garaietatik ordura arte auzo-komunitateak izandako indarrak gainbehera egin zuen, eta horrekin batean, auzolanak ere bai. Industrializazio berriak eragindako urbanizazio masiboarekin, hautsi egin ziren ohiturazko gizarte-antolakuntza komunitarioan, auzo-komunitatean, estuak ziren harremanak, eta ordura arteko talde kohesio handiari ere eragin zion.

11. Europarekin ohituraz izandako merkataritza-harreman horiek ia erabat eten ziren 1820ko hamarkadan Madrilgo agintariak aduanak Ebrotik Pirinioetara lekualdatu zituztenean, eta ordura arte ekonomia-jarduera oparoa zena galdu egin zen, Mikel Soraurenek bere *La Historia de Navarra, el Estado vasco* lanean dioenez.

Bidenabar, erran behar dugu, historikoki herrietako bizimoduaren alde guztiak erabaki eta kudeatu izan dituen *Batzarra* erakundearen eskumena murriztuz joan dela Estatuak (frantziar eta espainiar Estatuei buruz ari gara) boterea bereganatu ahala, eta herriko kontuak herrian moldatzetik, zentralizatutako botere guneen menpe gelditzera iragateak ere ondorio sakonak izan dituela. Hainbat alditan gauzatzen joan den egitatea da, baina oro har erran dezakegunez, XVIII.-XIX. mendeetan gertatu zen bilakaera hori. Batzarrari eta jatorrizko euskal erakundeei buruzko azalpena hurrengo atalean emanen badugu ere, komenigarria iruditu zaigu egitate hau orain aipatzea, ezinbertzekoa baita hemen azaltzen ditugun bilakaerak ulertzeko.

Atal honetan bilakaera horren berri ematen da, eta horren ondorioz ahulduta edo desagertuta gelditu diren zenbait balio aurkezten dira. Ez da liburu honetarako egindako hausnarketa, gai hori landu duten hainbat egilek errandakoa jasotzen baitugu atal honetan.

Hala ere, auzolana hain antzinakoa den jarduera izanagatik, gaur egun mantentzen dela nabarmendu nahi izan dugu: Anoetako *Auzolan kulturala* da lan modu horren garrantzia azpimarratu eta gure gaur egungo gizartean nola txertatu hobekien azaltzen digun adibidea. Herri horretan, industria-lantegiak agertzearekin batean, ordura arte nekazaria eta abeltzaina izandako komunitatea erabat aldatu zen, eta herritarren arteko harreman berriak antzinako balio batzuk berreskuratuz jorratzeko asmoz abiatu zen ekimena, Auzolan Kulturala deitua. Adibide horrek baieztatzen digu auzolanak zer toki izan dezakeen «Komunikazioen aroa» deitu dugun egungo eredu globalizatu honetan.

2.1. Auzolanaren gizartearen bilakaera

«Auzolanaren gizartea» ohiturazko auzolana indarrean izan den gizarte-eredua izendatzeko erabili dugu. Auzolana

aztergai dugun honetan, garrantzitsua iruditzen zaigu jarduera hau oinarritzko sistematzat zuen gizarte-ereduak izan duen bilakaeraren nondik norakoan berri ematea, hori ulertzeko argi-izpiak aurkeztea.

Auzolana eta berau indarrean egon den gizarte-antolakuntza berezia denboran kokatzen saiatuko gara, gizarte horren jarduera nagusien eta balioen azalpen bat eskainiz, 1960ko hamarkadan jarri dugun mugarría ikustarazte aldera. Erran bezala, jarduera sozio-ekonomikoari eta balioak biltzen dituen pentsamoldeari buruz mintzatuko gara, egitura politikoa aipatuko badugu ere, hori hurrengo atalean sakonduko dugun gaia izanen baita.

Data batzuk finkatze aldera, Neolito garaia buruzko sarrera xume bat eginen dugu. Garai hartan agertzen dira gaur egun oinarritzko jarduera ekonomikoak direnak; hau da, abeltzaintza eta nekazaritza, edo lehendabiziko industriak, burdinoletan oinarrituak. Garai hartan eratu ziren, halaber, lehendabiziko herrixkak, eta, beraz, gure gizartearen lurralde-antolakuntza orduan hasi zela erran dezakegu.

Neolitiko garaia, Euskal Herrian, K.a. 5.000 urte inguruan kokatzen da, eta Neolito aurreratua deritzon finkatu izan da artzaintzaren agerpena (K.a. 4.000tik 3.300era). Nekazaritzari dagokionez, jarduera horren ikerkuntzak zailtasun handiagoak ditu, laboreen arrastoak ikertzea zailagoa baita –eta zer erranik ez barazkienak–. Hala ere, azken urteetan aurkikuntza garrantzitsuak agertzen ari dira, eta Lidia Zapata EHUKO arkeologoa da ildo horretan nabarmentzen den eragilea. Orain arte uste izandakoa baino antzinakoagoa da Euskal Herrian nekazaritzaren jarduera, artzaintzaren agerpenarentzat finkatu dugun garaia baino antzinagoko garagar aleen arrastoak aurkitu baitira¹².

12. Zehazki, K.a. 4.500 urtean kokatutako garagar aleak aurkitu dira Kobaeerrako indusketetan (Kortezubi, Bizkaia). Neolito garaian garagarra eta ezkandia (gari

Garai hartan, kobazuloak utzi eta etxolak eraikitzen hasi ziren biztanleak –kontuan hartzekoa da bilakaera horiek ez zirela homogeenak izan, eta denbora-tarte luzeetan kokatzen ditugula, gutxi gora-beherako errealitate bat azaltzeko asmoz–. Neolito amaieran (K.a. 3.300etik 2.500era) hiletarrituak agertzen dira. Brontze Aro beherean eta amaieran (K.a. 1500-1200 eta K.a. 1200-900/850, hurrenez hurren) etxolak elkartu eta elementu komunak garatzen hasten dira, hala nola, putzuak, siloak edo harresi antzekoak¹³.

Lurraldearen antolaketari dagokionez, Euskal Herrian hiru herri mota bereizi izan dira; horien arabera, gutxi gora-behera, herrialdea ere geografikoki hiru zatitan banatuko litzateke iparraldetik hegoalderantz. K.a. lehendabiziko milurtekoan jada nabaria zen eraketa hori.

Lehendabiziko zatia Pirinioen bi aldeetan hedatzen da, eta Baztan ibarretik Enkarterriraino doa, Arabako iparraldearen zati bat hartuz; urak Kantauri itsasora isurtzen diren eremua da, eta bertan, bata bertzearengandik zertxobait urrun dauden herriguneez gainera, bizilekuak ere hala ageri zaizkigu, baserriak direlarik horren adierazle nagusiak. Atlantikoko eremua deritzona izanen litzateke.

Eremu horretatik hegoalderantz, uren isuriak hegoalderantz joaten hasten diren lerrotik behera, Arabako Lautada eta Nafarroako Pirinio aitzineko eremuak bilduz (Iruñea eta Agoitz-Irunberri, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari ibarrak hartuz eta hegoalderantz pixka bat zabalduz) herri bilduak eta txikiak daude, elkarrengandik hurbil daudenak. Mediterraneoko eremuaren barnean kokatzen da, Ebrora

mota bat) ereiten omen ziren. Iturria: *El cultivo del trigo en el siglo xx en la Euskal Herria Atlántica. Apuntes etnoarquelógicos*, Lidia Zapata eta Leonor Peña, *Eusko Ikaskuntza*.

13. Iturria (nekazaritzari buruz erran duguna izan ezik, hori gorago aipatutako iturritik jaso baitugu): *Euskara eta Euskal Herriko historia*, Ekhaiz Arrikibar. www.kondaira.net/eus/index.html

baitoaz eremu horretako urak, eta handik Mediterraneo itsasora.

Azken lerroan, Arabako Errioxa, Nafarroako erdialdea (Tafallaldea) eta Erribera hartzen dituen eremua dugu, eta gune zabalagoak irekitzen diren heinean, herrigune handiak daude, bata bertzearengandik nahiko bereziak¹⁴. Herrien eraketak ezberdinak badira ere, eta, ondorioz, horietako jarduerak eta izaera bera ere bai, gizarte-antolakuntzan sistema bertsua dutela antzematen dugu, ezberdintasunak ezberdintasun. Lehenago erran dugunez, auzolana bera Euskal Herri osoan zabalduetako jarduera izateak hori baieztatuko luke.

Behin aurkezpen hori eginda, jarduera ekonomikoen azalpenari lotuko gatzazkio. Juan Thalamas egileak *Yakintza* aldizkarian argitaratutako «El colectivismo de los pastores vascos» (*Yakintza*, 17. zenbakia, 1935) lanean jasotzen duenez, Neolito garaian ehiztaria eta arrantzalea zen herria, mendialdean artzain bilakatuko da, eta mendi oinetan, berriz, jatorrizko nekazaritza hasiko da. Herri hori, Paleolito garaian osatua, Asturiasetik Vasconiara eta, iparraldera Dordoña eta Ariege herrietaraino, hedatzen zela dio Thalamasek, J. M. Barandiaran eta bertze hainbat adituren lanak oinarritzat hartuz.

Pirinioen inguruko lehendabiziko artzain haien lekukotzat, bertako abere arrazak izatea eta kolektibitatean antolatzeko joera aurkezten ditu. Hasiera batean nomadak izan zitezkeela uste du Thalamasek, eta urte sasoiaren arabera lekualdatzen zirela; hau da, udan mendi-goietan ibiliko ziren, eta neguan bazkaleku epelagoak bilatuko zituzten.

Hala ere, euskal ekonomiaren substratua lurren erabilera kolektiboa izan dela eta horien inguruan manko-

14. Herrien bereizketa hori azaltzeko, Juan Carlos Etxegoienek *Orhipean* eta Mikel Soraurenen *La Historia de Navarra, el Estado Vasco* liburuetatik atera ditugu datuak.

munitateak osatu zirela jakinarazten du. Nekazaritzari dagokionez, indoeuropar herriek ekarritako nekazaritza baino lehenago, Paleolito garaian sustrai-, belar- eta fruitu-biltzaile izandako emakumeak lurrian ereiten hasi zirela baieztatzen du, eta horrela hasi izango zen Barandiaranek aipatzen duen «jatorrizko nekazaritza». Geroago, herri indoeuroparrek teknologia berriak ekarriko zituzten, eta goldearen antzeko tresneriarekin, hasierako nekazaritza haren iraultza gertatuko zen.

Artzaintza (abeltzaintza, oro har) eta nekazaritza izan dira, mendez mende, herrien jarduera nagusiak, bai gurean, Euskal Herrian, eta baita mundu zabalean ere (Paleolito garaitik datozen ehiza, arrantza eta fruitu-, belar- eta sustrai-biltzea ahaztu gabe).

Oinarrizko jarduera horiekin batean –oinarrizkoak diogu, elikagaiak ekoizteko jarduerak baitira–, burdingintza, ikazkintza, teknologia-industria eta merkataritza ere antzeman ditzakegu. Euskal Herri guzian egin izan diren jarduerak dira (bakoitza eremu jakinetan gehiago edo gutxiago nagusitu da). Hala, Erriberan nekazaritza nagusitu izan dela erran dezakegu, baina ezin dugu atzendu hor artzainak eta, oro har, abeltzainak ere izan direla, merkataritza eta bertzelako jarduera batzuekin batean.

Modu berean, Aralarko, Pirinioetako eta gainerako goilarreetan artzainak nagusitu diren arren, horiek beti baratztea eta laboreak landu izan dituztela oroitu behar dugu. Burdinolen jardueran oinarritutako herrietan ere (Bizkaian eta Gipuzkoan, Nafarroako iparraldean...) aipatutako bi lan arloak ere elkarri estu lotuta egon dira, eta sarritan pertsona beraren lanbidea izan dira artzaintza, nekazaritza, oihangintza, burdinolak eta errotak zaintzea, *harginkoa* –harrigintza eta eraikuntza– eta bertze hainbat.

Elkarri estu lotutako jarduerak izanda ere, arlo bakoitzak bere izaera berezia du, eta hori hala dela jakiteak hainbat alde ulertzen lagun diezaguke. JosAnton Artze usurbildar olerkariak dioskunez, artzaina espazioan kokatzen

da, eta nomada da; urteko sasoiaren eta beharren arabera, bazkaleku egokiak bilatzeko harat-honat ibiltzen da. Berak sortutako kultura, aldiz, denborari dagokio, eta ez espazioari: dantza, musika, kantua... –eritmoan eta, beraz, denboran oinarrituak dira–.

Nekezaria, berriz, sedentarioa da, bizitzeko leku jakin bat aukeratzen baitu, eta denboraren nozioaren menpe bizi da: noiz ereinen duen, uzta noiz bilduko duen... Aldiz, berak sortutako kultura espazioari dagokio, eta hortik sortzen dira arkitektura eta gisako arteak. Bi dimentsio ezberdin ageri zaizkigu, beraz.

M. Lekuonak «Euskal Institutukizunak» lanean¹⁵ Euskal Herriko ohiturazko jarduerak aurkezten ditu, eta honela dio artzaintzari buruz:

«Erri-kulturak duan guztia, dirala kantikak, dirala dantzak, dirala ipuiak, gure hizkuntza bera ere tartean dala, bere bertsolaritzarekin, artzain-kulturatik dator, itur-burutik ura bezala. Gure herriaren demokrazi-sena bera ere antzinako erakunde agurgarrietan agertzen da, eta haren iturria artzain-kulturaren aroan eta giroan dago».

Lekuonaren lanean, artzaintza, laborantza eta olagintza –burdinolen jarduera– azaltzen ditu. Berak dioenez, laborariak, lurra lantzen hasteko, goi-mendietatik erreka bazterreko ibarretara aldatu ziren, bertan *luberriak* iraultzeko:

«Lurrak irauli eta arrotuz, lurra landu eta hazia ereiten du, lurrak berez zekarren uzta ugariagotzeko. [...] Orrela, berak landutako lurraren jabe izatera iristen da, artzain-aroan guztien ondasun ziran lurrak bere esku artzeraino».

Beraz, artzaintzan lurrek izaera komunala zuten eta laborantzarekin lehen aldiz lurrak norbanakoen artean banatzera iragan zirela nabarmentzen du Lekuonak. Euskal Herri guzian, hala ere, laborantzarako lurrak ere komuna-

15. *Euskaldunak. Euskal etnia* bildumako lehendabiziko liburukia.

lak izan dira, etxe bakoitzak horietako zati bat erabiltzeko eskubidea izan duelarik. Artzaintzan ere egiten dira antzeko lur-eremuen banaketak, artalde bakoitza bazkatzeko eremuak zehazte aldera. Beraz, lur komunalen banaketa gertatu izan dela baieztatu dezakegu, baina ez horien pribatizazioa; ez, behintzat, XIX. mendeko liberalismoak jabetza pribatua ezarri arte.

Izan ere, lurra norbanakoen –edo etxeen– artean banatzean, lur zatia erabiltzeko eskubidea ematen zaio, epe jakin batean edo erabilerak irauten duen bitartean. Erabilera hori amaitzean, berriz ere izaera publikoa hartzen du lurrak, ber- tze erabiltzaile baten eskuetara iragateko bada ere. Halaber, ohikoa izan da –eta oraindik ere hala da zenbait kasutan–, behin laborariak uzta bildu ondotik, lur-sail hori abereak bazkatzeko irekitzea.

Artzainen antolakuntza komunala izan dela ez dago dudarik: orain dela urte gutxi arte mendiko artzain-etxolak ezin izaten ziren teilaz estali, material horrek jabetza pribatua adierazten baitzuen –Urbiako zelaietan (Gipuzkoa) adibidez, Lekuonak bere lanean jasotzen duenez–.

Berak aipatutako kultura aldaketaren –artzaingotik gainerakoetara– adibidetzat jartzen du Martin txikiren kondaira: Martin txiki artzainak abileziaz ebasten dizkie *jentilei* edo *basajaunei* gariaren nahiz artatxikiaren haziak eta horiek ereiteko jakin beharrekoak, eta burdina lantzen edota burdinazko zerra bezalako tresnak egiteko modua ere horiengandik jasoko du. Kondaira horrek hemen aipagai ditugun jardueren arteko harremana adierazten duela ondoriozta daiteke.

Erran bezala, industria-jarduera ere garrantzitsua izan da Euskal Herrian. Hagitz antzinatek landu izan da burdina, historiaurretik XIX. mendea arte martxan izan diren burdinoletan, eta gero, XIX.-XX. mendeetako Industria Iraultzarekin batean ezarri ziren gisa aunitzetako lantegietan. Historiaurretik jarduera nagusia izan den herrietan loratu da industria-jarduera berri hori ere: Bizkaiko meatzeen

inguruko eremuan, Gipuzkoako ibar gehienetan, Nafarroako iparraldean...

Etenik gabeko kate gisa ageri zaigu euskal industria, bilakaera handia izan badu ere –gainerako jardueretan ere gertatu den eraldaketa, noski–. Herrietan ageri zaigun bezala, hainbat familiatan ere ageri da bilakaera: mendez mende burdinolak izandako baserrietako semeek siderurgia-lantegiak sortu dituzte Industria Iraultza gertatu denean. Joan den mendean Euskal Herria industria arloan gune nagusia zen bezala, Erdi Aroan ere punta-puntako industria gunea zen Europan; adibide bat jartze aldera, itsasontzien teknologia aipa dezakegu; baleei segituz Itsaso Atlantikoa gurutzatu eta Ternuara (Kanadan) iristen ziren itsasontziak eraikitzen zituzten. Burdinarekin eta azpiegiturak egiteko teknologiek lotutako industriaz gainera, nekazari-ekoizpenak maila handia hartu duen lekuetan, ezin ditugu aipatu gabe utzi laboreak eta barazkiak ustiatzeko lantegiak; Erriberan konserba-lantegien industria-jarduera garrantzitsua da.

Aipatu ditugun jarduera horiek elkarrekin bizi izan dira, eta elkarren arteko nolabaiteko oreka egon da, antolakuntza komunalaren barrenean –hau da, jarduera bakoitzaren eremuak herri-lurretan kokatzen zirenez gero, horiek kudeatzeko modua kolektibitatean erabaki eta antolatu izan da–.

Laborantza-lanak herri-lurretan egitea ohikoa izan da, gure egunetaraino: Tafallan, adibidez, «*komunalek*» garrantzi handia dute hango nekazaritzan, eta auzolana/*auzalana*, hiri horretan, Lizarra aldean bezala, horien erabilerarekin lotuta dago. Halaber, aitzineko atalean erran dugunez, alorreko lanak lagun bakarrak egitea zaila izanik, auzoak auzolanean aritu izan dira lurra iraultzen, uzta biltzen eta gainerako zereginetan. Oihangintza eta burdingintza herri-ondasun nagusietakoak izan dira, eta, beraz, herri-lurretan kokatzeaz gainera, horiekin lotutako hainbat lan auzolanean egin izan dira, erran dugunez. Burdinolak herriarenak izan ohi ziren, errentan eskaintzen baziren ere ustiatu nahi zituenak har zitzan.

2.1.1. Auzo-komunitatea oinarri duten herriei buruz zenbait hitz

Aitzineko atalean aipatu dugu auzotasunaren instituzioa, auzoen arteko harremanari dagokiona. Ohiturazko landa-eremuaren antolakuntza horrek azaldu berri ditugun jarduera guzien artean eta herrietako baliabideak ustiatzean historikoki izandako oreka ahalbidetu du.

Jose txu Martinezek Arabako Mendialdean dagoen Arana ibarreko gizarte-antolakuntza aztertu du *Ritos, pueblos y montañas* lanean, ibar horretan antzinako sistemek bizirik dirautela-eta. Honako ondorioa eskaintzen digu:

«Europako landa-eremuko gizarte tradizionalak mendeetan zehar egonkortasun handia erakutsi dute. Barne-egiturako mekanismo jakin batzuek azaltzen dute demografiaren eta ekologiaren artean eduki duten oreka. [...] Egonkortasun horrek ahalbidetu du bere barrenean antolakuntza-forma iraunkorrak izatea»¹⁶.

Eta barne-egitura horri buruzko xehetasun batzuk azaltzen ditu:

«Oinordekotzan hartutako lurrarekiko, noizean behin berritutako ohiturazko jardueretik eta kontzejuen bidez babestu diren eskubideekiko lotura estuak, nekazari-herriak eta eskualdeak *auzoen arteko errepublika* bihurtzen ditu. Komunitate horien identifikazio, lurraldetasun, ezberdintasun eta autoafirmazio errituek autarkian bizi diren –bakoitzak bere eliza, hilerria, eskola, errota, landa-zelaiak eta baselizak baititu– baina gainerakoekin harremanak dituzten herri horien nortasuna eratzen dute».

Arabako ohiturazko gizarteari buruz hala dio:

«Orokorrean abeltzaintza eta nekazaritza jarduerak uztar-tu dituzte, baina mendialdean dauden eremuetan artzaintza

16. Martinezen lanetik jasotako adierazpenen itzulpena liburu honetarako egina da.

eta ikazkintza moduko jarduerak izaera berezia ematen diete gizarte-antolamenduari eta kulturari. Araudiaren *konplexutasuna*, jarduerak erregulatzerakoan erabiltzen duten *xehetasuna* eta kontuak egiterakoan, arazoak moldatzerakoan eta elkarlana –auzolana¹⁷– koordinatzerakoan komunitate horiek agertzen duten *zehaztasuna*, lur-eremu bera gisa guztietako jarduerentzat erabiltzearen ondorioa dira».

Erabilera horien artean pertsonenak, abereenak, nekazaritza-produktuenak, bideenak, baselizenak eta eliza-ospakizunenak aipatzen ditu, eta hori horrela izanik, «komunitatea deuseztatzeko mehatxua egiten duten gehiegikeriazko jardueretatik babesteko, erabilerak arautu egin behar izan dira». Jarduera bakoitzarentzat espazioaren erabilera arautzeak lurraldea banatzeko sistema konplexuak eratzen ditu: harrizko harresiak, mugarriak, baselizak, mendiko bideak, animalien ibilbideak...

Eta honela aurkezten du auzotasunaren instituzioa:

«Herria bertako entitate soziala da, elkarrekin bizitzen, lan egiten, bestan gozatzen, otoitzean eta hiltzen ikasten den gunea. Auzoa izatea herri bateko herritarra izatea da, eta kontzejuan duen parte-hartzearen bidez dauka mendia erabiltzeko eskubidea. Ez dago ezer logika bikoitz honi ihes egiten dionik: errituak, eskubideak, mugak, ondarea, artzaintza, kontuak, suak (gaztelaniaz *fogueras*), abereei egiten zaizkien markak eta ernaltzeko hazten diren zezenak, guztiak dira herriko kontuak».

Berezko gizarte-egiturarekin lotzen ditu ohiturazko landeremuaren izaera eta kultura, horiek «espazioaren, giza-taldeen eta jendartearen jokamoldea egituratzen duten errituen arteko harremanetatik sortzen baitira». Martinezen hitzetan «lurraldea da gizarte-antolakuntza azaltzen duena, ez da odola (seni-

17. Martinezek *vereda* dio, hala deitzen baitzaio Arabako Arana ibarrean, bertze leku batzuetan bezala.

detasuna)», eta, beraz, «espazio-, gizarte- eta erritu-faktoreek osatzen duten *harreman-nortasun* dialektika [...]» aurkezten du.

Arabako lurralde historikoan herria da antolakuntza-unitaterik txikiena, oinarrizkoena, eta maila horretan antolatzen dira mendien eta larreen erabilerak. Berezko antolaketan modu horrek maila handian kohesionatutako gizartea ahalbidetzen du. Arlo guztiak kolektiboaren ardura dira, eta kontzejuak –batzarrak– zuzentzen ditu horiek. Herria zer izan den azaltzerakoan, Martinezek Max Weberrek egin-dako adierazpena jasotzen du:

«Herria elkar-laguntzearen adierazpena den auzo-komunitatea da. Geografikoki auzoek duten hurbiltasunak, ingurumenak agertzen dituen erronkak elkartuta gainditzeko beharrak eta ekonomia itxi batean oinarritzeak azaltzen du bere izatea edo existentzia».

Auzotasunaren zereginik garrantzitsuena elkarri lotuta dauden espazioak erregulatzea omen da, eta hori egiteko modua txandaka¹⁸, proportzioan eta komunean egitea izan da. Auzotasuna izan da gizarte-eredu horren bizkarrezurra: horren bidez, betebeharrak eta lanak banatzen dira, pertsonak, landa-zelaiek, abelburuek eta mendiek euren ekarpena egin diezaioten herriaren biziraupenari.

Lerro batzuk gorago azaldu dugun jardueren aurkezpenaren ildoari lotuz, zera erran dezakegu: xx. mendea arte gisa guztietako jarduerak izan dira Euskal Herrian, eta horien arteko eta ingurumenarekiko oreka nagusitu da, hein handi batean, bederen¹⁹. Hori ahalbidetu duena

18. Gaztelaniaz, *a renque*. Arana ibarrean sistema hori erabiltzen dute, etxez etxe, herriko zereginak herritar guztien artean banatzeko.

19. Horrekin ez dugu erran nahi lehenago ingurumenean kalterik ez zela egiten; jakina da itsasontzien industriak, adibidez, egurra ateratzeko oihanen ustiatze basa eragin zuela zenbait eremutan; baina burnigintza jarduerak egur kopuru handia eskatzen bazuten ere, oihanak berriz ere zuhaitzez betetzeko lana egin izan da, eta horien eremuak ez die gainerako jarduerari lekurik kendu, bazkalekuek eta alorrek euren espazioak izan baitituzte.

auzo-komunitatean oinarritutako gizarte-antolakuntza izan da.

2.1.2. Bizimodu herritarretik hiritarrera

Martinezen hitzak hona ekarriz modu xumean aurkeztu dugun landa-eremuko gizarte hori xx. mendean erabat aldatu zen. European Industria Iraultzak lehenago astindu zuen ohiturazko landa-eremuko gizartea, baina hemen, Francoren erregimenaren pean ezagutu zen egitate hori. Orduan erabat gailendu ziren industrializazioak, nekazaritza eta abeltzaintza mekanizatzeak eta egurraren ustiatze masiboak gure ingurunean aztarna nabarmena utzi duten aldaketak eragin dituzte –industria-lantegi erraldoiak eta ugariak, pinuaren, eukaliptoaren eta gainerako zuhaitz mota arrotzen sarrera, herrietatik hirietarako emigrazioa eta abar–, bertzelako gizarte-harremanak sortu dituztenak.

Arestian aipatutako Mikel Errazkinen lanean egileak labur eta zehatz azaltzen duenez,

«xx. mendean, Euskal Herria bizimodu herritarretik bizimodu hiritarrera lehenik eta bizimodu globalizatzaileera ondoren igaro da. Honek gizarte moldeetan aldaketa nabariak bultzatu ditu: erlijiotik zientziara, landa guneetatik gune urbanora, nekazaritza ekonomiatik industria-ekonomiara. Honela, kultura tradizionalak bilakaera bat izan du. Bilakaera hau eragin duten faktore nagusiak Euskal Herriko hego-mendebaldean populazioaren hazkundera eta industria-lizazioa izan dira».

Euskal Herriko bertze eremu batzuetan, berriz, aurkakoa gertatu zen: landa-eremuak hustu eta hirietan pilatu zen jendea. Horrek ohiturazko bizimodua aldatu eta kulturaren eragina izan du:

«Azpimarratu beharreko beste faktorea homogeneotasun kulturarena da, herri-sorkuntzan eragin bete duen

gizarte molde hori azken hamarkadetan globalizazioak bulztatua da».

Jarraian bere lan-esparrua izan den Anoetari buruz dioena Euskal Herri osora zabaldu daiteke:

«Anoetan komunitateak izan duen garrantzia historikoa: herriaren sorrera prozesuan edo lur eta lan antolamenduan. Honela, tira-bira historikoak gaintituaz duela gutxi arte mantendu dira auzolana bezalako balore komunitarioak. Honela, balore kolektibo hauen galera present edukitzeko beste faktoreetako bat izan da».

Arestian aipatutako Martinezek ere bilakaera horren berri xehetasunez ematen du bere lanean. Haren erranetan, ohiturazko nekazaritza norberaren kontsumoari begira aritu izan da; bertan, lurraren eta komunitatearen arteko lotura estua da; bizilekua eta, aldi berean, ekoizpen-gunea den herria *auzoek* –herritarrek– kudeatzen dute lehentasunezkoa den helburu bati jarraituz: giza-taldearen eta berau mantentzen duen gizarte-egituraren biziraupena.

Ildo horretan, erabakiak hartzerakoan herrietan zegoen *etxe bat, bozka bat* formulak komunitatearen biziraupena bermatzen zuen, haren erranetan. Horren orde, gaur egun, laboraria «profesional» bihurtu da, eta produktuak jada ez dira laborariaren fruituak, bera katebegi bat bertzerik ez baita produktuak merkaturatzeko prozesuaren katean.

Landa-eremua elikagai eske dagoen hiriaren produkzio-gunea da, eta azken horretan biltzen dira biztanlerik gehienak; landa-eremua «errentagarriagoa bilakatu behar duen produkzio-unitatea da». Mendia, berriz, bazkalekua, artzaintza, ikazkintza eta gisako lanen eremua, etxearentzat hain beharrezkoak diren egurra eta iratzea lortzeko gunea, edo artzainen etxolen kokalekua izatetik *Insignis* pinuaren salmentarako produkzio-gunea izatera iragan da.

Biztanleak herritik alde egin eta hirietan metatzeak desoreka larriak eragin ditu lurralde-antolaketa, ingurumenaren eta baliabideen kaltetan.

Herriak bere burua kudeatzeko zuen sistemak, hau da, Batzarrak, bere zereginak eta boterea murriztuta ikusi ditu, ibarrak edo kontzeju taldeak gobernatzen dituen Udalaren agintepean.

Goi-erakundeetan, landa-eremuen ordezkari-tza eze-rezean gelditzen da, sistema proportzionala ezartzearekin batean: ohituraz, lurraldetasunak arautu ditu ordezkari-tza horiek, eta, beraz, herri bakoitzak bere ordezkaria izan du, tamaina txikikoa izanagatik ere. Proportzioan oinarritutako sistema ezartzearekin, biztanle kopuru txikiko eremuak ez dira aintzat hartzen. Gauza bera gertatu da *etxe bat, bozka bat* formularekin ere, jada etxeak ez baitu garai batean izandako garrantzirik.

1960-80 hamarkadetan, nekazaritza-eremua hiriaren aldean gutxietsia eta bazterrera utzia izanen da. Hiriak xurgatzen ditu herriak, eta teknologia berriak ezarriko dira horietan ere. Garai horretan emanen dira deslokalizazioa eta boterearen zentralizazioa ere, eta eskualde-egiturek irentsi egingen dituzte herri-egiturak.

1980ko hamarkadari dagokionez, Martinezek hiru fenomeno berri izendatzen ditu: «Ber-lokalizazioa», hau da, hiriaren anonimotasunaren aitzinean tokian tokiko izaera baieztatzea; nekazaritza-eremuen urbanizazioa eta, azkenik, ingurumenarekiko kontzientzia izatea. Hirugarren fenomeno hori agertzearekin, nekazaritza-eremuaren izaera naturalaren balioa aintzat hartzen da, eta hiritarren aisialdi-gune gisa erabiltzen hasten da.

Felix Rodrigo Mora egileak *Naturaleza, ruralidad y civilización* lanean, modu gordinean azaltzen du berak «landa-eremuko gizartea»²⁰ deritzonaren suntsitzea. Haren erranetan, VIII.-IX. mendeetan gorpuztu zen gizarte-antolakuntza berezia Erdi Aroko azken mendeetan garatu zen, baina

20. Itzulpena liburu honetarako egina da.

ordutik aitzinera, XVIII. eta XIX. mendeetan, haren indarra gainbehera hasi zen, Estatua boterea herritarrei ebasten joan zen ahala. 1936ko gerraz geroztik, frankismoaren pean, erabat desegituratu zen, 1960ko hamarkadan abiatu zen prozesuaren helburua horixe izan baitzen, egileak adierazten duenez.



1960ko hamarkadan hainbat eremutan herrietatik hirietara lekualdatu zen jendea

Arretaz aztertu du espainiar Estatuaren menpeko lurraldeetan landa-eremuko gizarteak izandako bilakaera, eta bere ondorioa zinez zorrotza da: Frankismoko erregimenak gizarte haren «genozidioa» eragin zuela baieztatzen du.

F. R. Moraren lan oparoaren ildo nagusiak bilduz, honela azal ditzakegu haren erranak: 1936ko gerra iritsi arte, Industria Iraultzak eragin txikia izan zuen lurralde horietan, eta hein handi batean, bizirik iraun zuten ohiturazko jarduerak eta gizarte-antolakuntzak. Egile horrek baieztatzen duenez, landa-eremuko jendarteak muzin egiten zion teknologia berriak onartu eta euren jarduerak mekanizatzeari. Hala ere, gerra horrekin ezarritako erregimenak herrialdea «modernizatzeko» helburuz abian jarritako gisa guztietako neurriek honako eragin hauek izan zituen 1960ko hamarkadan: landa-eremua hustea –eta ondorioz, herritarrak hiriguneetan pila-tzea–, nekazaritza-sektorea mekanizatu eta monolaborantza intentsiboaren eredia izugarri hedatzea eta antzinako mundu-ikuskera eta gizarte-harremanak guztiz eraldatzea.

Hori guztia ekoizpenaren hazkundean oinarritutako ustezko gizarte-garapenaren izenean egin zen, baina egile horrek jakinarazten duenez, antzinako gizartearen balioak ez ziren –geroztik diren bezala– aberastasun gorena lortzea, gai materialen kontsumoa edo zentzumenen gozamena; berdinen arteko harremanak lortzea eta horiei bizirik iraunaraztea, elkarrekiko harremanen goxotasuna eta laguntza ematea, eta elkarrekin izatearen gozamena gailentzen ziren... Funtsean, elkarbizitzaren edo bizikidetzaren gizartea zen hura, Moraren hitzak gure eginez erran dezakegunez.

Egile horren erranetan, antzinako gizarte hartan balio ez-materialak gailentzen ziren, eta horrek zaila egiten zuen Industria Iraultzak berekin zekartzan diruaren eta kontsumoaren faktoreak ezartzea. Norbanakoaren independentzia, agintari arrotzen erranekiko gaitzespena, norberekiko errespetua eta duintasunari buruzko pentsamolde eta sentimenak gailentzen zirenez, zaila zen jendartea industria-lantegien jarduerari atxikitzea.

Bere lanean argitzen duenez, Erdi Aroaren ondorengo mendeetan, neurri handian herritarren esku zegoen boterea Estatu bereganatuz joan zen, bertzeak bertze, XVIII. mendeko korrante liberalek abiatutako desamortizazio-legeen bidez ondasun kolektiboak Estatuaren eskuetan jarriz edo XIX. mendean ordura arte tokian tokiko erakundeek ziren eskumenak bere eginez –hemen kokatu behar dugu Karlismaldiak galdu, eta Euskal Herriko Foru-erakundeen desegitea–.

Estatua Batzarren eskumena mugatuz joan zen, eta boterea zentralizatu egin zuen, Estatuaren hiriburuan –Madrilen– eta handik gobernatutako tokian tokiko erakundeetan. Botere hori metatzeko bi ildo seinalatzen ditu F. R. Morak: batetik, egitura politikoak desegitea eta berrantolatzeta, eta, bertzetik, jarduera sozio-ekonomikoa zuzentzeko, antolatzeko eta kudeatzeko eskumena hartzea. Egitura politikoari buruz gehiago sakonduko ez badugu ere, jarduera sozio-ekonomikoan izandako bilakaeraren zertzelada batzuk jaso ditugu egile horrengandik.

Aipatu dugunez, teknologia berriak ezartzearekin, jarduerak mekanizatu egin ziren –horretarako, frankismoaren erregimenak dirutza ikaragarriak txertatu zituen gizartean–, eta industria-guneak sortzearekin batean, landa-eremuaren biziraupenerako berebizikoa zen herri-lurren kudeaketa bere esku hartu zuenez, herritarrak hirietara joatera behartu zituztela baieztatzen du Morak. Izan baziren hirietako bizi-moduak erakarritako herritarrak, eta horien erantzukizuna ere salatzen du egileak, baina erregimenak ongi landutako estrategia orokor eta eraginkorraren ondorioa izan zela nabarmentzen du.

Herri-lurren gaineko eskumena Estatuaren eskuetara iragatean, oihanak ustiatzeko prozesu ikaragarria abiatu zen: hazkunde azkarreko zuhaitzez bete ziren mendiak, ordura arte bazkalekuak eta jendartearen zereginetarako baliabideak zirenak. Egileak dioenez, ordura arte oihanaren erabilera askotarikoa zen: fruituak elikadurarako erabil-

tzen ziren; fenomeno meteorologikoetan eginkizun handia betetzen zuten –bertzeak bertze, euria ahalbidentuz-; eta oihanen lur-zoruan osatzen den landaredia, bazkalekua edo lurrarentzat ongarria zen, animalien babesleku izateaz gainera, baina garai horretan egurra saltzeko baliabide soil gisa kudeatuak izatera iragan ziren, horrek dituen gisa guzietako ondorio kaltegarriekin.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretan modu intentsiboan ekoizteko politikak abian jarri ziren, teknologia berriak eta nekazaritzarako gai kimikoak sartuz, eta zenbait baliabide modu masiboan ustiatzeko desoreka larriak sortu ditu. Lurraren kalitatea da, segur aski, ondorioak gehien pairatu dituen, eta, beraz, lurretik eratorritako gai guztiena –elikadura, ingurumena...–.

Jendarteari dagokionez, F. R. Morak «modernitatearen» eta «aurrerapenaren» izenean antzinako gizarte-eredua «atzerakoitzat» aurkeztu eta biztanleek hura gaitzestea lortu zela salatzen du. Jakina, hori ezinbertzekoa izan zen eredu berria ezartzeko. Jatorria gaitzesterakoan, norbanakoaren «deserrotzea» gertatu zela azpimarratzen du. Morak bezala, Errazkinek ere aipatzen du bizimodu herritarretik hiritarrera iragaterakoan gertatu den sustraien galera hori –bertzeak bertze, identitate kolektiboa osatzen duten hainbat balio galtzea–.

* * *

Auzolanari buruz orain eskainiko dugun hausnarketa hau ere auzo-komunitatean oinarritutako gizarte-antolakuntzaren bilakaerari buruz mintzo zaigu: Etxalarko apeza den Pello Apezetxeak erran digunez, garai batean elkartzeko beharra zegoen, eta hala [elkartuta] egiten ziren lanak. Gaur egun, badira baliabideak, eta ordainduz jasotzen dira zerbitzuak; beraz, horrela uler dezakegu auzolanak gainbehera egin izana.

Ildo berean mintzatu zaigu Mixel Berhokoirigoin, Euskal Herriko Laborantza Ganbarako lehendakaria. Azaldu

digunez, garai batean auzolanean aritzea beharrezkoa zela aise uler dezakegu, zenbait lan egiteko eskulana bertze bitartekorik ez baitzen izaten, eta, beraz, talde-lana eskatzen zuen etxaldeko jarduerak. Gaur egun, pertsona bakarrak makineria egokiarekin egin ditzakeen lanak dira horiek: belarra idortu eta bildu, lurra irauli, ongarrria eman, artoa bildu... Norbanakoak makineria hori ez izanda ere, badira zerbitzu hori eskaintzen duten enpresak, eta bakarrik dauden laborariek zerbitzu horiek eskatzen dituzte.

Behin hori erranda, Berhokoirigoinek honakoa oroitarazten digu: garai batean, eskulana izateko, etxeetan familia handiak eratzen ziren, baina garai berri hauetan, etxalde gehienetan laborari bakarra edo bikotea izan ohi dira. Hori hala izanik, ezinezkoa da garai bateko talde-lana gauzatzea.

Hala ere, berak Ipar Euskal Herrian antzematen duenez, hainbat eremutan indar handia du auzoen arteko harremanak, eta horietan auzolana eguneroko kontua da, auzoa baita lehendabiziko bilatzen den laguntza: «Lehen gauza auzoarengana joanen zira. Beharra dela, berri ona edo txarra dela, berdin-berdin. Atxikitzen du horrek», Berhokoirigoinek dioenez. Beraz, oro har auzolanak gainbehera egin edo desagertu bada ere, auzo-komunitateak indarra duen eremuetan, bizi-bizirik jarraitzen du.

Izan ere, Berhokoirigoinek baieztatzen digunez, elkarlanean «sortzen den giroa maite du jendeak, giro umoretsua sortzen da» eta, beraz, beharrian materialak eta ez-materialak asetzen dira gisa horretan arituz. Auzolanean arituz ez da lan gutxiago egiten, bere erranetan,aldi batean laguntza jasotzen den bezala, hurrengoan norberari egokitzen baitzaio ondoko baserrira lanera joatea, baina «lan egiteko moldean eta giroan, kualitatiboki irabazten da». Gaineratzen duenez, lanetik aparte ere taldearekin denbora gehiago ematen da, bizitzako gainerako arloetan, auzo-komunitatea indarrean dagoen tokietan.

Azalpen horretatik ondorioztatzen dugunez, teknologia berrien garapenak badu zerikusia talde-lanaren gainbehe-

ran, baina auzo-komunitateak indarra duen lekuan, teknologia horiek eskura izanda ere, taldean aritzeak garrantzitsua izaten segitzen du.

Berhokoirigoinek argi ikusten du norberaren bizimoldeari lotuta dagoela taldean aritzea edo bakarka, izaera kolektiboa den edo bakarka aritzea nahiago den. Noski, kasu batzuetan bakarrik egoten dira, halabeharrez, laborari aunitz, zenbait landa-eremutan ez baita lehen adina jende bizi, baina taldean edo bakarka aritzeko aukera dagoenean, aipatutako bi izaeretako baten hautuak erabakitzen du modu batean edo bertzean ari.

Bere hitzetan, «auzolana posiblea da horretarako aski laborari izanez gero; laborari guti baldin bada, harreman sozial gutxiago izanen da, eta horrela ezin da; orduan, laborariak errazago deituko du enpresa bat lanak egiteko. Oinarri soziala behar da, baldintza soziala: gutxieneko laborari kopuru bat, doi bat, aski da bizi soziala egiteko. Aski laborari denean, gauza kolektibo gehiago egiten da. Ez bakarrik base-rriko lanak, hortik kanpo diren aktibitateak ere bai; ekimen gehiago abiatzen dira, eta horiek forma ezberdinak dituzte».

Momentuz, horretan utziko dugu Berhokoirigoinengandik jaso duguna. Gaur egun laborantza-munduan egiten diren ekimen kolektiboen berri eman digu berak, baina horiek aitzinerago azalduko ditugu, hirugarren atalean.

2.1.3. Dantzaren eta horren bidez lantzen den talde kohesioaren bilakaera

Ohiturazko gizartean talde-kohesio handia izan dela eta kohesio hori ahulduz joan dela baieztatzeko, J. A. Urbeltzek ezagutarazten duena zinez interesgarria da. Bere lanetan aztergai dituen ohiturazko dantzak, gaur egun *folklore*–herri kultura– gisa sailkatzen ditugunak, ohituraz herritarren arteko talde-kohesioa lantzeko jarduera izan direla adie-

razten digu Urbeltzek, *Bailar el Caos* lanean. Dantzek, bertze hainbaten artean, errituak plazaratzeko helburua dute, baina baita herritarren arintasuna eta trebezia lantzekoa edo aipatu dugun talde-kohesioa jorraztekoa ere. Dantzaren bidez, oro har, herritarren arteko harremanak zehaztu eta jorrazten dira, eta jakina denez, –gure egunetaraino bizirik iraun duen balioa baita–, dantza da harremanetarako abagunea, elkar ezagutu eta elkarrekin gozatzeko jarduera.

Urbeltzek dioskunez, dantzaren bilakaerak gizarteak izandako bilakaeraren berri ematen du: garai batean, herritarren arteko harremanak estuak ziren, eta elkarri eskutik lotuta dantzatzen zen, Esku-dantzek erakusten dutenez, edo karrika-dantzan –biribilketan– egiten den moduan. XVI.-XVII. mendeetan, Elizak debekatu egin zuen –bertzeren artean– katean dantzatzen zirenetan elkarri eskutik lotuta aritzea, eta orduan, dantzarien artean zapiak jarri ziren, hurbiltasun hori hoztuz; dantzariak ez zioten jada elkarri eskutik hartzen, bakoitzak zapiaren punta bati helduta lotzen ziren katea osatzeko²¹.

Geroago, Soka-dantzan bezala biribilean eta berdintasunezko jarreran antolatutako dantzen orde, ilaratan aurrez aurre eta bikoteak osatuz antolatutako dantzak agertu ziren, *Kontradantzak* deitu zirenak. Izen hori ingelesezko *Country-dancetik* etorria da, handik zabaldutako dantza baita. Itzulpenean «kontra» bezala agertzen bazaigu ere, *Country-danceren* adiera *Herri-dantza* dela ohartarazten du Urbeltzek.

XVIII. mendeko dantzak aztertu zituzten Manuel Larramendik eta Juan Inazio Iztuetak, eta biak ere beldur ziren dantza molde berriek jatorrizko kate-dantzei²² tokia

21. Gipuzkoako soka-dantzetan zapien bidez lotzen dira dantzariak, baina bada eskutik helduta dantzatzen den herririk ere: Zubietan (Gipuzkoa) hala egiten dutela jakin ahal izan dugu.

22. Katean dantzatzen direnak, soka-dantzan bezala.

kenduko zietela, beren lanetan adierazirik utzi zutenez. Iztuetak, halaber, ez zituen begi onez ikusten fandango eta arin-arin dantzak, solte egiten zirenak. Dantza berri horiek ez zituzten kate-dantzak desagerrarazi; aitzitik, fandango eta arin-arin Soka-dantzaren barrenean txertatu ziren, baina, nolabait ere, ordura arte herritarrek erakusten zuten talde-kohesio estua aldatzen ari zela adierazten dute dantza molde berriek –elkarri lotuta eta biribilean dantzatzetik, bikoteka eta aske dantzatzera iragaten baitziren dantzariak–. Gure egunetan ezagutu dugun diskoteka-kulturan, berriz, antzinako kohesioa erabat galdu dela baieztatu dezakegu, bakoitzak bere kasara egiten baitu dantza.

2.2. Galdutako balioen bila

Martinezek lanari jarraiki aipatu dugun moduan, gizarte- eta bizimodu-aldaketarekin erabat galdu edo gainbehera joan diren hainbat balioen garrantzia nabarmena da, horien gabeziak sortzen dituen beharrak agerian gelditzen diren heinean. Martinezek berak aipatzen du azken hamarkadetan horietako hainbat balio berreskuratzeko beharra sumatu dela «gizarte moderno» honetan. Errazkinek, berriz, honela dio Anoetari buruzko bere lanean:

«Aldaketa honetan [herritar-bizimodutik industrializazio-gizartera iragatea] mikrokosmos pertsonalak sortzen hasi ziren, lehenagoko makrokosmos kolektiboek erorpena ekarri zuten».

Aitzinerago, berriz, gai berari ekiten dio:

«[...] zera ondorioztatu dezakegu, herriaren sorreran gizarte antolamendu kolektiboak ezinbesteko garrantzia izan zuela, bai herritarren beharrei erantzuteko, bai lur eta lan antolamenduan. Hala ere, esana dugun bezala, gizarte tradizionaletik globalizatzaileera pasatzean bilakaera bat izan du Euskal Herriak [...]. Bilakaera honetan balore individualistak kolektiboak gailendu zaizkie».

Ildo horretan, Peter Bergerren *Cambios sociales: Sociedades tradicionales, modernas y posmodernas* lanean agertutako testua jasotzen du Errazkinek:

«Pertsonak elkartasuna eta zentzua aurkitu zituzten gizarte definitu eta kohesionatuak ahuldu egiten ditu modernitateak, erabat suntsitu ez baditu»²³.

Gizarte horietan identitatea sakon erroturik zegoela jakinarazten du historialari anoetarrak. Industrializazioarekin batean hasi zen indibidualizazioari buruz, R. H. Tawneyk errandako hitzak ekartzen ditu gogora:

«Kapitalismoak beti erabili izan du estrategia jakin bat altxamendu kolektiboak saihesteko: zenbait norbanakori salbazioa eskaini, gainerakoek erakutsiz norbere gaitasunak direla –eta ez injustizia estrukturalak– gizarteko maila batean edo bestean kokatzen gaituztenak. [...] Bazter utzitako kolektiboetan –kolektibo marjinauetan– gaitasun handiena dutenei irtenbide indibiduala eskainiko zaie, eta horrek estrategia kolektiboak suntsitzen ditu»²⁴.

Tesi horiekin bat egiten du Errazkinek bere lanean jorratu duenak:

«[...] Bizimodu zibilizatuan dena ez zen zoriona, bere barruan giza oinarriaren banaketa eragin duen krisia gertatu baitzen. Balio berriak bide ekonomikoetatik eskuratuak izan behar zuten, berarekiko konsustantzialak zirelako. [...] Eta kontsumorako joera duen aisiak kultur produkzioa baldintzatu du, eskaintza asko aisialdia betetzeko bideratuz».

Ildo horretan, hala nabarmentzen du: «Egungo gizakiak sustraiak behar ditu, ezin du hautsi milaka urtetako joera kulturalarekin, eta ondorioz, jatorria bilatzen du. Bilaketa horretan aurkitzen duena ez da galdutakoa zehazki, bere beharrak neurri batean asetzeko ordezkoa baiziki». Horren

23. Itzulpena liburu honetarako egin da.

24. Itzulpena liburu honetarako egin da.

harira, Mikel Aranburuk *La gestión del Folclore. Diez consideraciones desde un enfoque teórico* lanean jasotako testua aurkezten du:

«[...] gaur egun folklorean esku-hartzeko erabilitako arrazoi nagusia identitate kolektiboa zaintzearena da... ideien ondarea kontsolidatzeko gizartearen onespena behar dela oroitzea aski da. Identitate kolektiboa eta ondare kulturala parekoak ez badira ere, ondare honek kolektibitatearen esentzia garbia transmititzen du eta talde-identitate adierazpenaren papera merezi izateko izaera sinbolikoa hartzen du»²⁵.

Eredu globalizatazaileak eragindako aldaketa sakonei begira «homogeneotasun kulturalaren aurrean herri-identitatea lantzearen garrantzia» azpimarratzen du Errazkinek. Dena den, «neoliberalismoa kapitalismoaren eredurik basatiena» dela aitortzen badu ere, Manuel Castellsek *El poder de la identidad* lanean herri txikien alde errandakoa ekartzen du bere azterketa-lanera:

«Globalizazioak hurbiltasunerako itzulia dakar, ezagutzen ditugun eta neurri batean kontrola ditzakegun eremuetarako itzulia, eta horrek berrindartu egiten du hurbileko taldeen eta tokian tokiko identitateen beharra –herri nortasuna, erlijioarekiko atxikimendua...-». Ildo horri segituz, Cesare Pavese-ren hitzak bere egiten ditu Errazkinek: «Partikularitasuna da unibertsal izateko modu bakarra».

2.2.1. Anoetako Auzolan Kulturala

Euskal Herri osoan bezala, xx. mendearen bigarren erdiko industrializazioak Anoetan ere aldaketa handiak eragin zituen. 1950eko hamarkada arte, nekazaritza zen jarduera nagusia, baina gaur egun, Tolosan eta Anoetan bertan koka-

25. Itzulpena liburu honetarako egina da.



Goiko argazkian, laiariak Baliarrainen (Tolosaldea), xx. mendearen hasieran (1915). Indalecio Ojanguren (www.guregipuzkoa.net)



Beherean, Laiariak Arren (Iruñerria), xxi. mendearen hasieran. Arreko herri zaharrean, hiru etxetako auzoek sasiak hartutako eremua auzolanean garbitu eta baratzea egin zuten, 2010. urteko udaberrian. Jasone Mitxeltoarena

tzen diren lantegietako industria-jarduera da ekonomiaren oinarria. Aitzineko mendean laukoiztu egin zen biztanle kopurua, eta, beraz, Errazkinek dioen bezala, «herri berria da. [...] egun, anoetarren erdia barne-migratzailea da. Horrek herritarren arteko harreman sareetan aldaketa handiak eragin ditu; harreman sare berrien beharra ikusi da, herria lo toki huts bilaka ez zedin». Horri eta herritarrek Tolosara joateko zuten joerari erantzunez, gisa guzietako zerbitzuak ematen hasi ziren herrian, hala nola, liburutegia, musika-eskola, osasun-etxea eta hainbat jarduera (buztina lantzea, dantza...).

Hala ere, 1999. urtean Udalak eta hainbat eragilek izandako bileren ondotik, autokritika egin zuten. Kultura-eskaintza oparoa baldin bazen ere, herritarrek ez omen zuten parte hartzen, ez omen zituzten ekitaldiak *bere* egiten. Hortik zer ondorioztatu zen azaltzen du Errazkinek:

«Gauzak horrela, kultur espazio berrien beharra identifikatu zen, herritarren arteko harreman sareak sortaraziz. Herritarrak subjeto izanik, herritarrak errepresentatuko zituen herri kulturaren adierazpenak landuaz. Laburbilduz, herrian pentsatuta egindako kultura; herrian sortutakoa eta herriarentzat egina».

Euren egitasmoa kokatzeko asmoz, egileak Anoetan komunitateak historikoki izan duen garrantzia azaltzen du bere lanean. Herriak ondoan duen mendian, Basagain muinoan, Burdin Aroko *kastroa* dago, eta horrek erakusten duenez, duela bi mila urte inguru biztanleak baziren han. Herritar haien antolakuntzan elkarlana ezinbertzekoa zenez, elkarren arteko harremanak estuak ziren. Geroago eratutako gizarte-sistemak bateratasun hori eduki du, kontzeju gisa eratu baitzen Anoeta. Maila handiagoko erakundeei dago-kienez, hiribildu gisa (gaztelaniaz *villa*) eratutako herriek Gipuzkoako Batzar Nagusietan parte hartzen zuten, horietan bakoitzak bere ordezkaria zuela. Tolosaldeko historiari buruzko bilduman Juan Carlos Morak egindako «Bizitza komunitatean: Kontzejua» lanean idatzitakoa jasotzen du Errazkinek:

«Komunitateak modu elkartuan bere lurraldea gobernatzeko –hala ondasunei nola herritarrei zegokionez– zuen modua izendatzeko agirietan aurkitu den terminoa kontzejua izango da. Komunitatea gobernatzeko modu honen helburua autosufizientzia ziurtatzea izan zen beti, eta auke-
ra zegoenean, komunitatearen baliabideak eta ondasunak handitzea, ondarea etorkizuneko belaunaldiei gordez, beraiek aurrekoengandik jaso zuten modu berean».

Errazkinek horren adierazle aurkezten du landa-eremuan hain berebizikoa zen errotaren kasua:

«Antolaketa moduaren garrantzia errotaren eraikitze eta mantenuan datza; izan ere, errotek eskatzen zuten lana ez zen batere makala: erreka menperatzeaz gain, hilerio mantenu-lan handia eskatzen zuen. [...] Beraz, gizarte komunitateak kontrolatzen zuen. Eta ideia hau oso garrantzitsua da, herri askotan erroten jabeak bertako jauntxoak izaten baitziren eta, sarritan, errota nekazal komunitatea kontrolatzeko bidea baitzen. Anoetan aldiz, alderantziz gertatu zen».

Gauza bera gertatzen zen herriko parrokia-elizarekin ere, auzoen –etxe-jabeen– esku baitzegoen. Errazkinek dioenez, herritar guztiak berdinak ziren. Bazen handikien familiaren bat, baina Anoetan ez omen zuten lortu eredu feudala –jauntxoak herritarrek menperatzen zituen eredu– ezar-
tzerik. Alderantziz, lurren antolakuntza komunitarioa zen; hau da, herri-lurak nagusitzen ziren.

Anoetak herri gisa historikoki izan duen bilakaera azaltzen amaitzeko, aitzinetik aipatutako guztiaren adierazpena den auzolana aurkezten du Errazkinek:

«Auzolana komunitatearen garapenerako burutzen den elkarlan antolatua da; auzoko bizitza orokorrean auzokoek dituzten azpiegitura eta baliabideen beharrak lantzeko elkarrekikotasunean burututako ohiturazko lana. Anoetan, xx. mendean burututakoak soilik daude dokumentatuak, ondoko lanak burutu direlarik: xx. mendearen hasieran San Joan Bataiatzailearen eliza erre ostean, zimitorioa edo eli-

zako arkupearen berreskurapena; 1942an frontoia; 1950eko hamarkadan Madril-Irun trenbidearen geralekua; Goibailara eta Elbarrena bailaretako hainbat bide ireki eta mantendu edo 1971n Anoetako pilotaleku berria, zeinari auzolanaren emaitza izan zenez Alkartasuna izena jarri baitzitzaion.

1974an Hernialdeko iturburu batetik urak ekarri ziren eta 1976an kanposanturako bidea egin zen. Auzolanak Anoetan XXI. mendean irauten du, honela, Goibailarako biztanleek, baserritar zein etxe-jabeak, bailara hartara doan bidea zabaldu zuten auzolanean 2004ko udazkenean».

Komunitate-balioak mantentzen direlako adibide jar-tzen du Anoetan 1950ean sortu eta egun indarrean jarrai-tzen duen Etxe-erreketa elkarte. Auzolanaren erakusgarri aurkezten du, bertzalde, Anoetako Herri Ikastolaren sorrera. Kasu horretan herriaren azpiegitura edo eraikin bati dago-kiona izan beharrean –ohiturazko auzolana den bezala– herri kultura hezkuntzaren bidez sustatzea helburu duen auzolanetik sortu da ikastola hori, Euskal Herriko bertze aunitz bezala.

Eta atal honen hasieran aipatutako identitatearen arazoari aurre egiteko ere, auzolana erabili dute, *Auzolan Kulturala*, hain zuzen ere:

«Anoetan, herritarren arteko harremanak sortarazteko herri kultura landu da. Kultur adierazpen ezberdinak sinboloen bidez errepresentatu dira. Sinbolo sinpleak, herritarrak berehala bereak bezala identifikatzeko. [...] Herritarra erakarrria sentitu dadin ezinbestekoa da herritarra kultur adierazpenetan subjektu sentitzea, objektu sentitu beharrean. Hori lortze bidean herritarren parte hartzea ezinbestekoa da, eta herritarrek parte hartzeko herritarrek ezagutzen duten eredu batean oinarrituta egin da, auzolanean».

Zuberoako adibidea ekartzen du Errazkinek bere lane-ra, kultura jorratzerakoan hartutako bidea ezagutarazteko. Hala, Mixel Etxekoparrek idatzitako «Kulturaren egoera Zuberoa bezalako herri ttiki batean: Biharko tradizioa nola sortu?» lanean oinarrituz, honakoa diosku:

«Zuberoan tradizioan oinarrituriko kultura espazio berriak sortu badira, dinamika herrikoi baten ondorio izan direlako da. Eta dinamika herrikoi hori Zuberoko artzainen lan jardun kolektiboaren ideian oinarrituta egin da. [...] Mixel Etxekoparren ustean, eskualde batean kultur dinamizazioa eman dadin ezinbestekoa da bultzatzaileek bertako herritarrek aktibitate kultural tradizionalak antolatzeko erabiltzen duten sistema sinboliko-kognitiboan oinarritzea. [...] Eta Zuberoan sistema hori mendi larreak erabiltzeko sistema da, hau da, *Olhak* kudeatzeko sistema. Anoetaren kasuan aldiz, sinbolo kognitibo hori auzolanarena da. [...]

Gauzak honela, [Anoetan] herriaren ongizatea eta garapen pertsonal eta kolektiborako herritarren elkartasuna ezinbesteko balorea izan da historikoki; herriaren garapenean komunitateak garrantzia handia izan du. Orain arteko ideia-lokarriak lotzeko, hau da, herritarren parte hartze sistema sinboliko-kognitiboa lantzeko, *auzolan kulturala* dei diezaiokeguna landu da Anoetan. [...] Eta auzolan kulturala burutu dadin funtsezko hiru baloreak herri-identitatearen garapena, balore komunitarioen berreskurapena eta parte hartze demokrazia izan dira».

Bere lanean hiru faktore horiek azaltzen ditu, eta identitateari dagokionez hizkuntzak –euskarak– duen garrantzia azpimarratzen du. Behin teoria xeheki azalduta, errandakoak praktikan nola jarri ziren adierazten du; Anoetan dauden herri-eragile eta kultura-talde guztien arteko elkarlana abiatuz, herritarrek antolatu eta gozatu dituzten hainbat ekitaldiren berri ematen du, eta horietan nagusi, Anoetako Bertso Antzerkia aurkezten du. Urtero herriko jaietan egin da ekitaldi erraldoi hori, eta erran gabe doa anoetarrek bilatutako helburuak hein handi batean lortu egin direla, Errazkinen kontakizunean antzeman daitekeenez. Segi dezatela horretan!

3.

AUZOLANA BERRESKURATZEN

HASIERAN AIPATU BEZALA, INDARREAN IRAUN duen edo berreskuratu izan den auzolana aurkezteko atal honetan, interesgarria litzateke Euskal Herri osoan dauden datuak biltzea, baina gure bilaketa, ordea, landuak izan diren informazioetara mugatu dugu. Etxalarko kasua, adibidez, zuzenean jaso dugu, hango auzolanaren berreskuratzea liburu honen egitasmoarekin batean agertu baitzaigu, eta horrez gainera, auzolanaren filosofia aintzat hartuz abiatu denez, adibide adierazgarria dela uste dugu. Horregatik, gaurkotasuna duen adibidea izateaz gainera, auzolanak adierazten duena eta bere barrenean biltzen dituen ideiak azaltzeko interesgarria iruditu zaigu.

Gure bilaketan aurkitu ditugun daturik adierazgarrienak bildu ditugu lan honetan, horiek eskainiz auzolanari buruzko ideia orokorra azaltzeko asmoz. Lan honekin, irakurleengan auzolanarekiko jakin-mina piztea espero dugu, eta nahi genuke bakoitzak bere inguruan ezagut ditzakeen auzolan-jardunei buruzko interesetik abiatuta, lanketa gehiago etortzea. Atal honetan bildutakoak eza gutuz, bakoitzak bere auzoan, herrian edo hirian aurki ditzakeen kasuekiko jakin-mina eta horiei buruzko gogoeta

sortzea da helburuetako bat. Eta ildo horretan dinamika berriak abiarazteko balio badu, hainbat hobeki.

3.1. Auzolana, administrazio zentralizatuen gabeziei erantzunez

Aitzineko lerroetan aipatu dugu auzolana historikoki tokian tokiko gobernu baten lanerako sistema izan dela, herriak kontzeju irekiak –batzarrak– kudeatzen zituen gizarte-antolakuntzaren baitan kokatutako sistema. Duela mende batzuetatik hona instituzio horien boterea ezerezean edota mugatuta gelditu da, eta horien ordeztu gobernu zentralen menpe dauden udalak ezarri dira. Boterearen zentralizazio horrek arazo larriak sortu ditu toki aunitzetan, batez ere, txikiak diren herrietan. Nafarroan horietako kasu aunitz antzematen dira, eta herri horiek, administrazio zentralizatuaren gabeziei aurre egiteko, auzolanera jo behar izan dute.

Toki batzuetan ez diote behin ere utzi lan modu horri, baina bertze aunitzetan berreskuratu egin behar izan dute. Horrez gainera, bertze bereizketa bat ere ikusten da: ohituraz egin izan den auzolana ordenantza bidez araututa egon ohi da, eta herritarren betebeharra da horietara deitzen den egunetan lanera joatea. Baina ez da horrela gertatzen guztietan: kasu batzuetan, auzolana borondatezko ekintza gisa berreskuratu da, eta bertze batzuetan, berriz, lan jakinak egiteko bakarrik baliatzen denez, ez dago araututa. Bi kasu horietan egiten den auzolanari *borondatezkoa* erran ohi zaio.

Erran bezala, Nafarroako herri aunitzetan –200 biztanle baino gutxiagokoetan, batez ere, baina baita handiagoetan ere– auzolana ageri zaigu oinarrizko beharrezanez erantzuteko modu bakar gisa; leku aunitzetan, udalek ez dute behar adinako diru-laguntzarik herriko karririk harriztatu edo zola emateko ere, eta gisa horretako oinarrizko azpiegiturak auzolanean egin behar izan dituzte. Gaur egun ere herrian egin behar diren oinarrizko lanak modu horretan egitera behartuak daude.

Azken hamarkadetako egunkariei begiratu bat eman da, Nafarroako herri aunitzetan auzolanak iraun duela edo galduta zegoen lekuetan lan modu hori berreskuratu egin behar izan dutela ageri zaigu.

1979an argitaratutako artikuluko batean, Lizarratik hurbil dagoen Mañeru herrian karrikak poliki-poliki auzolan harriztatzen ari zirela kontatzen da. «Udala pobrea izanik, herritarrek laguntzen dute, eta euren bizilekua eurek egiteko gogoak ere bultzatzen ditu horretara»²⁶, azaltzen du Udaleko idazkariak artikuluko horretan. Urte aunitz zeramatzen ordurako lan horretan, herritarrak nekazari lanetan aritzen ez ziren garaietan bakarrik egiten baitzen auzolana.

Informazio horren arabera, Nafarroako Diputazioak aurrekontuaren %29 eman zuen, baina idazkariak zioen moduan «herritarren parte-hartzeagatik ez balitz, ezin izanen lirateke gisa honetako lanak egin, Udalak ez baitu dirurik, eta zergak igotzea ere ez litzateke konponbide egokia izanen». Kasu horretan, auzolana erabat borondatezkoa da, Udalak ez baitu ordenantza bidez arautzen eta, beraz, herritarrek ez dute joateko betebeharririk. Haurrentzako parkea, futbol-zelaia eta frontoia ere auzolanegiteko asmoa zuten garai hartan mañeruarrek. 365 biztanle dituen herria da Mañeru, eta gaur egun, Iruñea eta Logroño lotzen dituen autobidearen ondoan dago.

Urte berean, Eraulen (Deierri ibarra, Lizarra ondoan), herriko hainbat hobekuntza auzolanegitekoak zirela agertzen da; bertzeak bertze, *erreboteko plaza* –pilotalekua– eraikitzea eta aisialdirako elkarte bat sortzea. Eraulek 71 biztanle ditu. Oibarren ere (Zangozaldea) urte horretan auzolanegitekoa zen herrirako ur-biltegia, eta aitzinera begi-

26. Liburu honetan jasotzeko, egunkarietan bildutako informazioaren itzulpena egin da.

ra, karriketako saneamendua eta argiak jartzea, espaloiak eraikitzea, mendirako bideari zola botatzea eta Iparraldeko errekaen gaineko zubia konpontzea ere auzolanean egiteko asmoa zuten. Nabarmentzekoa da Zangozatik hurbil dagoen herri horrek 933 biztanle dituela.

1978ko azaroan argitara emandako informazioan jasotzen denez, Sunbillako Udalak (Malerreka, Nafarroa Garaiaren iparraldea) auzolanaren ohitura berreskuratu zuen, alkateak zioenaren arabera «Udalaren aurrekontuak funtzionarioen soldatak ordaintzeko bertzerik ez baitu ematen». Karrikako zuloak konpondu, ur zikinentzat bideak egin eta erortzear ziren hainbat pareta moldatzeko asmoa agertzen du Udalak. Materialarentzat diru-laguntzak eskatzeko asmoa zuten, baina lana herritarrek auzolanean –eta, beraz, doan– egin behar zuten.

Urte batzuk geroago, 1981ean, Ibirikun karririk txukuntzeko lanen ondorioz (Deierri ibarra, Lizarratik 10 kilometrotara), herriko besten hasiera atzeratu egin zela azaltzen da prentsan. Aitzineko urtean hasiak ziren karriketan zementua emateko eta argiak jartzeko lanak, auzolanean. Urte horretako abuztuaren 29an herritar guztiak lanak ezin amaituz zebiltzanez, eguerdiko hamabietan botatzekoa zen suziria arratsalderako utzi behar izan zuten.

Alkateak azaldu zuenez, hamalau urteko gaztetxoetatik hasi eta hirurogei urtekoetaraino, denak aritu ziren lanean, bakoitza bere gaitasunaren arabera. Horrez gainera, txaletetan bizi zen jendea ere aritu zela nabarmendu zuen alkateak. Izan ere, bere hitzetan «badira batzuk oso ongi integratu direnak eta herriko arazoak berenak egiten hasi direnak. Zaila da hori, hiriburuko jendea ohitua baitago ordaindu eta dena eginda hartzera». Herriko lanak egiteko diru-laguntzarik ez zutela jakinarazi zuen alkateak. 65 biztanleko herri horrek ezker pareta pilotalekua eta igerilekuak eraikitzeko gogoa zuela agertzen da artikulu horretan. *Auzalanean* baina.

Joan den udazkenean, herriko garbilekua eta iturria den eraikina berreraiki zuten, jakin ahal izan dugunez²⁷.

Hemerotekarekin segituz, 1981. urteko berri batean, Baztanen, ANFAsek gutxitu psikiko eta fisikoentzat ireki nahi zuen lantegia baztandarrek auzolanean eraiki zutela jakinarazten da. Elkarte horrek urteak zeramatzan Baztan ibarrean lanean, aipatutako pertsonak eskolan integratzen eta antzeko jardueretan, baina eraikin baten beharra ikusten zuen, eskola garaia amaitzen zuten gazteek euren jarduerekin segitu ahal izateko kanpora joan beharrik izan ez zezaten. Administrazioak ez zuen erronka hori bere gain hartzen, eta, beraz, ANFAsek baztandarren artean arazoarekiko kontzientzia piztu zuen.

Poskonea izeneko baserria alokatu zuten, eta eraikina moldatzeko lana auzolanean egin zuten 300-400 lagunek, ura ekartzeko azpiegitura eta guzti. Lan jakin batzuetan aritu ziren profesionalak ere doako lanak egin zituzten zenbait kasutan, eta ibarreko hainbat lantegik materiala doan eman zuten. Auzolanean txandaka aritu zen herri bakoitza –herri txikiaren kasuan, binaka aritu ziren– eta informazioa ematen duen egunkariak dioenez, «herri txikiak izan ziren, proportzioan, parte-hartze handiena erakutsi zutenak». Diru-biltzea ere egin zuen elkarte horrek, eta 250 bazkide inguru lortu zituen.

1982. urteko artikulu batean, Soraurengo herritarrak agertzen dira auzolanean aritzeko prest (Ezkaibarte ibarra, Iruñeko iparraldea). Ordurako, zazpi urte zeramatzaten Diputazioari eta Vianako Printzea Institutioari Ultzama ibaia gurutzatzen duen erromatar iduriko zubia konpontzeko eskatzen. Herritarrak kezkatuta ageri ziren zubiaren oinarrian arraildurak agertu zirelako. Administrazioak deus

27. Lan horretan ageri dira Youtuben dagoen ikus-entzunezkoan: <http://www.youtube.com/watch?v=VDvxdBnqEVw>

ere egiten ez zuela ikusita, eurek hartu nahi izan zuten konponketa-lanak egiteko ardura, baina Diputazioak debekatu egin zien.

«Laster ekiten ez badiote, zubi gabe geldituko gara eta hori ez dugu onartuko. Ondotik bertze zubi bat, berria, egiterik ez dugu nahi; guk gure gurasoek eta aitona-amonek ikusi zuten zubi hori mantendu nahi dugu», adierazi zuen kazetariaren galderei erantzun zien herritar batek. Ekainean argitaratu zen informazioa, eta udan instituzioek aurrerapausoren bat ematen zutela ikusi ezean, zubia eurek auzolanean moldatzeko asmoa zuten. Azkenean, Vianako Printzea Institutioak egin zituen moldaketa lanak, 1986 urtean.

Bestetarako herria txukuntzeko, urtero egin ohi da auzolana Soraurenen, nahiz eta antzinako auzolana galdu ta dagoen aspalditik. Hala ere, duela sei urte elizako zorua auzolanean berritu zuten, eta Langarra elkartearen eraikina ere –eskola zaharrak– hala eraberritu zuten, duela hogeita hamar urte.

1982an, bertzelako arazoei aurre egiteko ere erabili zen auzolana. Astrainen (Zizur Zendea, Iruñerria) ur-horniduran kalteak jasan zituzten Potasas enpresaren lanen ondorioz. Enpresak ez zuen ardura bere gain hartu, eta Administraziolari jakinarazi zioten arazoaren berri. Hark ez zuen arazoa konpontzeko biderik eman, eta herritarrek auzolanean moldatu behar izan zuten ur-horniduren azpiegitura, garai hartako prentsak dioenez.

1983ko martxoan agertutako artikuluko batean, Uritzen (Artzibar, Agoitz ingurua) karrikei zola emateko auzolana nola egiten ari ziren kontatzen da. 27 biztanle zituen orduan Uritz herriak, eta hango Kontzejuko alkateak – Uritz Artzibarko Udalaren menpe dago– azaltzen du Diputazioaren diru-laguntza ez zela nahikoa lan horretarako. Auzolan hori egiteko, igandeetan biltzen ziren, alkateak berak elizako kanpaiak jotzean.

1989ko ekainean, Iltzarben (Ollo ibarra, Iruñerria) auzolanean eraikitako pilotalekua inauguratu zuten. 50 biztan-

le baino gutxiago zituen herri horretan ospatzekoa izan zen «hain herri ttikian pilotaleku handia egitea», garai hartako kronikak adierazten duenez. Herriko gazteak eta horien senitartekoak zein lagunak aritu omen ziren, aste-buruz asteburu, pilotalekua eraikitzen. Karrikei zola ematea, ur-hornikuntza eta herriko taberna irekitzea ere auzolanean egindakoak dira herri horretan.

1990ean, Izurdiagan (Arakil ibarra, Sakana) aurrekontuak murriztzak zirelako eta diru-laguntzak lortzeko zailtasunak zituztelako, auzolanera jo behar izan zuten herritarrek. Urte horretako abuztuan, arazoak zituzten ur-hornidurarekin, eta bertze hainbat eginbeharren artean, pilotalekua eraikitzeko asmoa zuten; alkateak aurrekontuetan sartzea espero bazuen ere, «hala ezin bada auzolanean egin beharko dugu», adierazi zion egunkariari. Materialak lortzeko dirua herritarren artean biltzea pentsatzen zuen; izan ere, hala egiten zuten herriko bestak antolatzerakoan: bestetarako aurrekontuaren herena herritarren artean bildutakoarekin ordaindu zuten urte hartan.

1991n, Lakuntzan (Sakana), auzolana berreskuratu zuten, Udalak herria zaintzeko zuen ezintasunaren ondorioz. «Hemen diru-sarrerak eskasak dira, eta lan egin beharra dago...», azaldu zion prentsari orduan herriko alkatea zenak. Legealdia hasi orduko onartu ziren auzolana ezartzeko ordenantzak, eta karriketako zuloak estaltzetik hasi ziren, herriko bazterrak txukuntzen. Hemezortzi eta berrogeita hamabortz urte bitarteko herritarrek horietan parte hartzeko betebeharra ezarri zen, eta hala egin ezean, 5.000 pezeta (30 euro) ordaintzera behartuta zeuden. Larunbat goizetan bildu ohi ziren, hogeita hamar laguneko taldeetan. Herriko oinarrizko azpiegituretan –karrikak harriztatzea, argindarra jartzea...– nabari zuen gabezia Udalak. 1.100 biztanle inguru ditu Lakuntzak.

Urte berean, Larragetan (Berriogoiti, Iruñerria), pilotalekua auzolanean egin zutela jakinarazten da. 54 biztanle zituen Berriogoitiko Udalaren menpeko kontzeju

horrek, baina gogorik ez zitzaien falta. Herriko gabeziak gainditzeko gelditzen zitzaien irtenbide bakarra, Larragetan bezala Nafarroako bertze herri aunitzetan, auzolana zela azpimarratzen du egunkariak. «Guk egiten ez duguna, ez digu inork eginen», izan ziren alkatearen hitzak egoera hori azaltzerakoan. Pilotalekua eraikitzeko lanak diru-laguntza murriztatzuekin abiatu ziren, eta hamabortz eta hirurogei urte bitarteko herritarrak izan ziren bi urtez, larunbatigandean lan eginez, eraikina altxatu zutenak. «Lehenago [pilotarako] pala hartzen ere ez zekiten haurrak», pilotalekua eraikiz geroztik, pilota txapelketetan ikustean, egindako esfortzuak merezi izan zuela sentitu zuen alkateak, egunkariari adierazi zionez.

1995ean, Añorben (Izarbeibar, Iruñerria), auzolanean eraikitako pilotalekua inauguratu zuten, eta Oronoz-Mugairin (Baztan ibarra), berriz, herriko plaza berria.

Hurrengo urteko abenduan, Bidaurreta (Etxauri ibarra, Iruñerria) herriari buruzko informazioa agertzen da prentsan, bertan auzolana zeinen errotuta zegoen goraiapatuz. Herriko azpiegiturak, udaletxea, pilotalekua eta herriko elkarte auzolanean egin zituzten, baita eliza konpondu ere. Artikulu horretan, diru-iturriak eskasak zirela jakinarazten du alkateak, eta auzolana goraiapatzen du: «Laguntzak lortzeko aukera guti genituela ikusita, egin duguna guztiok elkartzea izan da. Gure arbasoak ere auzolanean aritzen ziren, eta hala egiten segitzen dugu». 100 biztanle inguruko herria zen orduan Bidaurreta.

1998an, Eneritzen (Izarbeibar, Iruñerria) herriko plaza berria auzolanean egin zuten. 200 biztanle inguru dituen herri horretan eliza, hilerria, udaletxea eta igerilekuak ere auzolanean egin edo moldatu zituzten.

1999an Azpilkuetari buruz (Baztan ibarra) argitaratutako kronika batean, herri horretan guztia auzolanean egiten zela jakinarazten da: karridak garbitu, hilerria zaindu, errepideak moldatu... gazteak nahiz adinekoak aritzen omen ziren –eta ariko dira, segur aski– «etxean ttikitandik

barneratutako ohitura baita», zinpeko alkateak zioenez. 220 biztanle ditu Azpilkuetak, eta hain da estua eta ona elkarren arteko harremana non «aguazilik ere ez dugun behar», alkateak egunkariari adierazi zionez.

2000. urtean, Arbeizako alkateak (Allin ibarra, Lizarra ondoan) familia bakoitzari urtean zazpi egunetako auzolana eskatzea erabaki zuen, herritarrek egun horiek «kolektibitateari» eskaini ziezazkioten. Arbeizak 160 biztanle inguru ditu, eta alkateak hainbat eginbehar ikusten zituen; horien artean, hilerria zabaltzea.

2010. urteko otsailaren hasieran, Allotzen (Deierri ibarra, Lizarra ekialdean) auzolana egin zuten herriko bizilagunek, ohi duten moduan, horretarako urtean bitan elkartzeko baitira. Hala jakinarazi zuen egunkariak, auzolanari buruz argitaratutako artikuluan. Lizarra aldean herri gehienetan lan modu hori erabiltzen dela baieztatzen da, «mantentze-lanetarako langilerik ez duten herrientzat gaur egun baliagarria den formula baita». 1950eko hamarkadan nekazarieremua husten hasi zela eta auzolanak ere gainbehera egin zuela oroitarazten du informazioak, eta, beraz, herri aunitzek berreskuratu egin behar izan dutela. Horietako gehienetan ez dago, ohituraz izan den bezala, ordenantzen bidez arauturik, baina badira auzolana galdu ez edo ordenantzak berriro indarrean jarri dituztenak ere.

Horren adibide agertzen dira Aranaratxe (Ameskoa ibarrean), Galdeano (Allinen), Jaitzeko Gesaltza (Salinas de Oro) eta Lezaun (Deierri ibarrean). Horietako batzuetan sei auzolan ere antolatzen dituzte, baina bertze batzuetan urtean behin egiten dira, herriko besten aitzinetik karrikak txukuntzeko. Parte hartu ezean, ordaindu egin beharko dela ezartzen da; ordaina 36 eurokoa da Galdeanon, eta Lezaunen 90 euro eskatzen dituzte. Azken horretan ez da behin ere galdu auzolana, baina egun indarrean dagoen araudia 2003. urtekoa da.

Herri horretan, Allotzen eta bertze herri batzuetan bezala, nekazaritza-jarduerarekin lotuta dago auzolana; hau

da, landa-zelaiak dituztenek eta larre komunalak erabiltzen dituztenek dute betebeharrak hori, kasu horietan auzolana nekazaritza-azpiegiturak moldatzeko egiten baita. Allotzen ordenantzak badituzten arren, joaten ez diren bizilagunentzat ez dute ordainik ezartzen.

Lizarra aldean herri aunitzetan iraun duen jarduera da auzolana. Berriki, eremu horren garapenaz arduratzen den TEDER Gobernuako elkarteak Auzolanaren Lehiaketa antolatu du, jarduera horri merezi duen aitortzea egin eta bultzatzeko asmoz. Liburu honen azken atalean aurkeztu dugu egitasmo hori, *Auzolana XXI. mendean* deitu dugun atalean, hain zuzen ere.

3.1.1. Elizak, baselizak, zubiak...

Herriko oinarrizko azpiegiturez harago, herriarenak izan diren hainbat eraikin ere auzolanean –osorik nahiz hein batean– eginak izan dira. Horien artean, elizak eta baselizak –ermitak– nabarmentzen dira. Gure egunotan horien jabetza Elizaren eskuetan jartzen ari dela-eta puri-purian dagoen polemikari begira, interesgarria iruditzen zaigu horietako aunitz auzolanean mantendu direla azpimarratzeak. Izan ere, herriaren ondaretzat hartu izan ez balira, herritarrek lan horiek ez lituzkete euren gain hartuko. Gauza bera erran daiteke eraikin erlijiosoak kokatzen diren lurrei buruz ere, toki aunitzetan herri lurak izaten baitira.

Egunkarrietan agertzen denez, 1980an Gartzainen (Baztan) eliza konpontzeko hainbat lan auzolanean egin zituzten. Bi urte geroago, Berbintzanako (Nafarroa Garaia erdialdean, Tafalla aldean) eta Markalaingo (txulapain ibarra, Iruñerria) elizak ere gisa berean eraberritu zirela ikusten dugu; Ziraukin (Lizarratik hurbil), berriz, zubi erromanikoa eta Anizko baseliza. 1989an, Miranda de Argako (Tafallaldea) ermita ere auzolanean moldatu zutela konta-



Garesko plazan (Iruñerria, Nafarroa), Udaletxearen aitzineko aldean dagoen plaka. Dioenez, plazaren moldatzea zola harriztatzea «herriko seme-alabek eta lagunek auzolan eskuzabalean» egin zituzten, 1976ko irailean. J. Mitxeltoarena



Berako Eliza, atariko oroitarran jakinarazten denez, «Auzolanan egiña» izan zen. xvi. mendearen lehenbiziko laurdenean egina eta 1964-1965 urteetan moldatua. J. Mitxeltoarena.

tzen da. Bi urte geroago, Arripodasen ere (Urraul beiti ibarra, Agoitz eta Irunberri artean) gisa horretan konpondu zuten eliza.

1996an, Ororbiako (Oltzako Zendea, Iruñerria) eliza hamaika herritarreko lagun taldeak moldatu zuela agertzen da prentsan. Lanetik erretiratutako gizonak ziren, euren denbora librean eliza konpontzen aritu zirenak. 1998an, Erreako, Saigosko (Esteribar, Iruñea ipar-ekialdean) eta Tiebasko (Iruñerria) elizak ere auzolanean konpondu zituztela dio egunkariak. Urtebete geroago, Azpilkuetan (Baztan) hango basiliza auzolanean konpondu zutela kontatzen da, herri horretan «dena auzolanean» egiten baitute. 2000. urtean, Morentingo (Lizarra aldean) eta Nagoreko (Artzibar, Agoitz inguruan) elizei buruz ere, auzolanean konpondu zituztela kontatzen da.

Auñamendiren Euskal Herriko entziklopedian auzolanari buruzko definizioan, auzolanean eraikiak izan diren hiru eliza aipatzen dira: Berakoa (Bortziriak, Nafarroa iparraldean), XVI. mendearen lehendabiziko laurdenean eraikia eta 1964-1965 urteetan berritua, elizako atarian dagoen harrizko plakak dioenez; Aiako parrokia (Ataungo auzoa, Goierri, Gipuzkoa), 1911-1913 urteetan egina, Agaunza menditik mandoekin ekarritako harriarekin eta etxe bakoitzak laurogei egun lanean emanda; azkenik, Asiaingo eliza berria (Oltzako Zendea, Iruñerria), 1966an eraikitzen hasia. Datu horiek Idoia Estornesek jaso eta entziklopedia horretan argitaratu dira.

3.1.2. Bertze adibide batzuk

1976an, Miranda de Argako (Tafallaldea) ureztatzesistemari buruzko erreportajea agertzen da prentsan. Izan ere, hainbat sari jaso ditu, eta Nafarroako agintarien aldetik gorazarre egiten zaio «Nafarroako ureztatzesistemen-

tzat eredarri izan behar duenari», han egindako lanak modu txukunean egin direlako. Herriko nekazariak Junta de Regadío de Miranda de Arga batzordean elkartuta daude, eta kideen artean bildu zuten diruarekin, auzolanean moldatu zuten ureztatze sistema –orduko Diputazioak aurrekontuaren %10 bertzerik ez zuen jarri–. Lan hori eginda, landa-eremuetara ur gehiago iristen zela baieztatu zuten nekazariak.

1979ko ekainaren 23ko egunkarian honako titularra agertzen da: «Hamabi egun –bihartik uztailaren 5era bitartean– Iruñea auzolanean garbitzeko»²⁸. Bitxia benetan albistearen izenburua. Hona hemen azalpena: antza denez, iragan berria zen hauteskunde kanpaina, eta iruindarren Udaleko ordezkariak kezkatuta zeuden hiriko karririk propaganda afixaz eta pintadez beteta zeudelako. Sanferminak gainean izaki, udal-garbitzaileek guztia txukun uzteko beharko lituzketen orduak ordaintzeko diru eta denbora nahikorik ez omen zutenez, herritarren laguntza eskatzera behartuta ikusi zuten euren burua. Herritar bakoitzak metro koadro bat garbituz gero, hiria garbi geldituko zela planteatzen zuen Udalak, eta *Pamplona limpia* deitu zioten egitasmoa onartu zen.

Egitasmoa onartzeko egindako udal-batzarrean, Udaleko ordezkarietako batek «alderdiek eta auzo-elkarreetik bultzatuta, herritarrek kanpaina honetan parte hartuko dutela espero dugu» adierazi zuen, baina txantreako, Donibaneko, Arrosadiko eta Etxabakoitzeko auzo-elkarreetako ordezkarien erantzuna bertzelakoa izan zen: «Gas kutsakorrek, karriketako zuloek, ur zikinek eta zaborteziek aunitzez ere gehiago zikintzen dute. Gure arazoa zaborra, Ingranasa lantegiaren zikinkeria, arratoiak eta hori guztia da», erran zuen txantreako auzo-elkartekoak. Arrosadikoak, berriz, honela zioen: «Lan hau ezin dela auzokoen bizka-

28. Ikus 457. orria, egunkariko berria agertzen dena.

rrean zamat uste dugu, Udalarri dagokiolako eta ditugun milaka langabeei lana emanen liekeelako». Donibaneko auzokideen ordezkariak honela erantzun zuen: «Jarri dituenak ken ditzala!». Hala eta guztiz ere, biharamunean, Udalarri egunkarian iragarri zuen auzolanerako deialdia, hurrengo orrialdean ageri dena.

1980ko iraileko egunkari batean, Bakedanoko (Ameskoa ibarra, Lizarra iparralde) besten egitarauaren barnean ageri da auzolana. Goizeko bederatzietan biltzen ziren lanabesak banatzeko eta auzolana hasteko. Ordubeteren buruan, gosaria zuten, eta eguerdiko hamabitan botako zuten besten hasierako suzeria. Bestetarako karrikak txukuntzeko auzolana zela antzeman daiteke.

1982ko abuztuan argitaratutako albistean Etxarri Aranzten (Sakana) herriak dituen 2.326 biztanleetatik 1.000 lagunek auzolanean parte hartzen zutela azaltzen da, mendietako lanetan, gehienbat (itxiturak egin eta moldatzen). 1989an, Udalarri aitzineko urteko auzolanari buruz egindako balorazioaren berri ematen da: «Orokorrean, oso ongi funtzionatu du, eta herritar bakoitzak batez beste urtean bi auzolan egin ditu. Gehiago egin dituenak hurrengo urterako eginak izanen ditu, eta iritsi ez denak, berriz, ordaindu egin beharko ditu».

1991ko kronika batean, Luzaiden (Orreagaren eta Nafarroa Behereko Arnegiren artean) baserri bat erabat erre eta familia oso bat kalean geratu zenez, herritar guziren artean hutsik eta utzita zegoen etxe bat konpontzeari ekin ziotela kontatzen da. Etxeak eta baserriak erre izan direnetan, aunitz dira auzolanean auzoek eta herritarrek elkar lagundu duten kasuak.

1994an, Altsasun (Sakana), gazteendako antolatutako jardunaldi batzuen barrenean, mendiak garbitzeko auzolana egin zen. «Auzolanaren espiritua berreskuratzeko» ahalegina zela baieztatu zuten antolatzaileek.

1995ean, Leitzako (Nafarroa Garaia ipar-mendebaldean) Udalarri auzolana bultzatu nahi zuela ageri zaigu egunkarian. Aspalditik egin izan zela jakinarazten zen, bertzeak

bertze, mendietako bideak moldatzeko, eta garai batzuetan astero ere biltzen zirela, baina azkenaldian utzirik zegoenez, Udalak berriz indartu nahi zuela. Hein batean, baliabide ekonomikorik ez zutelako eta Nafarroako Gobernuko dirulaguntzak iristen ez zirelako jo zuten auzolanera; hala ere, langabezia zeuden gazteek euren denbora baliatzeko aukera ere bazela adierazi zuen garai hartako alkateak. Ohikoena etxe bakoitzetik ordezkari bat joatea bazen ere, ongi hartzen ziren gehiago ere.

Bakoitzak ahal zuena eramaten zuen: kamioia, aitzurra, pala... eta bertze batzuek, berriz, gosaria, hori ere beharrezkoa baita. Udal-agirien edo bandoen bidez egiten ziren deialdiak, baina baita herriko Karrape Irratiaren bidez ere.

1995eko egunkari batean, txantreako (Iruñea) Auzotegi Elkarteak da auzolanari buruzko albiste gaia. Astero berrehun bat lagun biltzen zituen espazioa omen zen Auzotegi garai hartan, eta gisa guztietako taldeen beharrianak modu egokian aseko zituen gunen baten premia nabari zuten. Horregatik, auzokoek eraikina auzolanean moldatzea erabaki zuten. «20.000 biztanle dituen eta hain parte-hartzaile den auzo honek zerbait gehiago merezi du», adierazi zion egunkariari auzoko batek, eta Udalak deus ere egiten ez zuela ikusita, auzokoek abiatu zuten ekimena, egunkariak dioenaren arabera.

Gaur egun hagitz ongi funtzionatzen duen auzo-elkartea da Auzotegi, eta gisa guztietako jarduerak eskaintzen dira. Auzokoek eta egoitza erabiltzen duten taldeek kudeatzen dute, eta horien esku dago hura mantentzea. Bidenabar, gorai-pamena merezi du auzo horretan ia betidanik izan den herri-mugimendu sendoak, hainbat eta hainbat lorpen erdie-tsi dituen; auzolanean arituz, auzokoek euren beharrianak asetzen dituen auzoa eraiki dutela eta eraikitzen ari direla baieztatu dezakegu: ikastaroak, gisa guztietako ekitaldiak, bestak eta jaialdiak...

Txantrea da, beharbada, horretan nabarmentzen dena, baina gisa horretako dinamika, oro har, Iruñeko gainerako

auzoetan ere badirela erran dezakegu. Udalak herri-borondateari egiten dion mespretxuaren aitzinean, auzoetako herri-mugimenduak –gehienetan auzo-elkarte gisa antolatuta– hartzen du hari dagozkionen ardura, hala nola, kultura eta gizarte arloetan. Hemen Iruñea aipatu badugu ere, ez ditugu Euskal Herri osoko auzoetako eta herrietako dinamikak gutxietsi nahi. Iruñea da, beharbada, Udalaren mespretxua eta herritarren borondatearen jazarpena larrienak diren hiria.

Atal hau amaitzeko, hemerrotekan aurkitutako bertze artikulu baten berri emanen dugu. 1998an, auzolanari buruz argitaratutako erreportajea, Iturmendin (Sakana) herritar guztiek egin beharrekoa zela jakinarazten da. Egiten ez zue-nak ordaindu egin behar zuen. Zortzi orduko laneguna izaten zen, baina makina pisutsuak eramanez gero, lanorduen erdiak bertzerik ez ziren bete behar. Bideak eta iturriak konpondu, udaletxeko eta eskoletako fatxadak margotu edo Festetako Batzordean parte hartzea ziren orduan auzolanean egiten zirenak.

3.1.3. Tafallako 'auzalana'

1980an, Tafallan zuhaitzak mendian landatzeko lanak *auzalanean* egin zirela kontatzen da egunkarian. Zuhaitzak *auzalanean* landatzeko lehendabiziko aginduaren berri gora-go aipatutako J. M. Esparzaren *Tafallaren Historia* lanean agertzen da: 1851n, Nafarroako Diputazioak 8.000 zuhaitz landatzeko agindua eman zuen, herritar bakoitzeko bi. Egun bakoitzean berrogeita hamar-hirurogei laguneko taldeak osatzen ziren. 1854ko maiatzean, Diputazioak Nafarroa osoan zuhaitzak landatzeko *auzalana* agindu zuen, eta egin ezean, lau errealeko isuna ezarri zuen.

1982ko martxoan, ekologista taldeak, ANAN elkarteak eta Udaleko Ekologia Batzordeak antolatu ohi zuten Zuhai-

tzaren Eguna ospatu zen. Ehunka zuhaitz landatu ziren, gisa guztietakoak, herriko parkeetan eta mendietan, *auzalanean*.

Bi urte lehenago, Ekologia Batzordeak hirurehun herritar biltzea lortu zuen Kondearen Parkea txukuntzeko. Hainbat egun behar izan zituzten gaur egun hiriko lekurik atseginenetakoa den gunea hori moldatzeko, erabat utzita baitzegoen.

Urte horietan maiz agertzen dira hiri horretan *auzolan*a tarteko den herri-lurrei buruzko eztabaidaren berriak. 1979an, Udalak herri-lurrei buruzko araudi berria proposatu zuen, eta nekazari batzuk ez ziren ados agertu ezartzen zitzaizkien baldintza berriekin. 1979ko maiatzean agertutako artikulu batean, Udalaren eta nekazarien artean izandako eztabaida sutsuaren berri ematen da. Bilera horretan herri-lurrak nekazarien artean banatzekoak ziren, baina ezartzeaz zen araudi berriari buruz hitz egiten amaitu zuten.

Nekazarien sektore bat ez zegoen ados herri- eta landa-bideak txukuntzeko urtean sei auzolan egin behar izatearekin, euren ustean herritarren artean gutxiengoak ziren nekazarien gainean lan guztiak pilatu nahi baitziren. Gainerako herritarrek halako eginbeharrik ez izatea ere protesta gaia zen nekazariarentzat. Hala ere, Esparzak bere lanean bildutakoaren arabera, 1979ko irailean herri-lurrak erabiltzen zituzten laborariak Tafallako landa-eremuko bideak txukuntzera atera ziren. Nekazarien arteko sektore bat lan horiei sabotajea egiten saiatu zen, baina hartara jarritakoek bide guztiak moldatu arte lanean segitu zuten.

1980ko apirilean onartu zen araudi berria, udaletxean izandako saio zalapartatsu baten ondotik. Araudi berriak, herri-lur alorrak banatzerakoan, gazteei eta beharrian handiena zutenei aukera gehiago eskaintzen zizkien, eta horrez gainera, herri-lurren erabilera ahalmen gehien zuten herritarrei ukatu egiten zitzaien, horiek bertzelako baliabideak lortzeko aukerak zituztela iritzita. Ahaldu horiek dozena erdia baino bertzerik ez baziren ere, araudi berriaren eta *auzala-*

naren aurka sinadura bilketa egin zuten. Ez zuten arrakastarik izan, eta erran bezala, araudi berria onartu egin zen.

Herri-lurrei buruzko afera lehenagotik dator. Aipatu dugun *Tafallaren Historia* lanean ageri zaigunez, 1969an horiei buruzko araudi berria onartu zuen Udalak. Esparzak garaiko prentsan agertutakoa jasotzen du bere lanean, eta hala azaltzen da araudi berria: ordura arte herri-lurrak 1.342 herritarren artean banatzen ziren, baina egoera berrian, horiek 225 herritarren artean banatuko zituztela erabaki zen, eta ordaindu beharreko kanon bat eta sei egunetako *auzalana* ezarri zuten horien gain.

Prentsari dagokionez, hogeit hamar urte geroago, 1990eko uztailan, Tafallan *auzalanean* aritzeko aseguruak kontratatzea erabaki zutela agertzen da egunkarian. Aseguru horrek traktoreekin ibiltzea eta horiekin gerta zitezkeen istripu eta heriotza kasuak babestu nahi zituen.

Hiri horretan azken hamarkadetan *auzalana* nekazariei lotuta agertzen bazaigu ere –zuhaitzak landatzeko lanaz gainera–, historian zehar herriko bideak harriztatzeko, ur-biltegia edo uharka konpontzeko, kare-labea egiteko, mendiko ur-putzua garbitzeko, San Pedro Elizari estalkia emateko harri-lauzak ekartzeko, uharka berria egiteko, *elur-zuloa* –elurra gordetzeko biltegia– egiteko edo 1997ko uholdeen ondotik ibaia garbitzeko erabili izan da lan-sistema hori, Esparzak bere lanean jasotakoaren arabera.

Egunkarian bertze kasu bitxi bat ere agertzen zaigu: 1987ko maiatzean ospatu zuten erromeriaren kronika da egunkarian agertzen dena, eta besta horretan jandako arroz-esnea emakume batek *auzalanaren* ordeztatu omen zuen. Horrela azaltzen du kronikak emakumearen kasua: «*Auzalanean* egun bat egiteko betebeharra zuen herritarra da, eta gisa horretan [erromeriarako arroz-esnea eginez] moldata du herriarekiko zorra».

Esparzak bere lanean dienez, 1983an Udalbatza berria ezartzearekin, herritarrek Udalean zuten parte-hartzea murriztu egin zen: ordura arte egiten ziren asanbladak

eta *auzalanak* desagertu egin ziren urte hartatik aitzinera. *Auzalanak* nekazarien artean eta noizean behin egin izan diren zuhaitz-landaketetan bertzerik ez du iraun. Hala ere, Tafalla biztanle kopuru handiko hiria izanik -10.900 lagun inguru- berezia da han *auzalanak* irautea.

3.1.4. Nafarroako Parlamentuan auzolanari buruzko eztabaida

Hemerotekan bilatuz aurkitu dugun bertzelako artikulatu bat agertuko dugu orain, 1980ko abenduan, Nafarroako Parlamentuan auzolanari buruz izandako eztabaida, hain zuzen ere²⁹.

Garai hartako prentsan azaltzen denez, Nafarroako Diputazioak herrietako ogasunari buruzko araudia eraberritu nahi zuen, eta moldaketa horretan, *auzalana* bi mila biztanletik beherako herrietara mugatzea nahi zuen. Araudi berria Parlamentuan eztabaidatu zen, eta azkenean puntu hori ezabatzea adostu bazen ere, bitxiak dira hainbat parlamentarik agertutako jarrerak.

UCD eta UPN taldeak ez ziren ados kopuru horretatik gorako herrietan eta hirietan auzolanera deitzeko aukera mantentzearekin: horietako gehienetan erabiltzen ez zenez, ezabatu beharrekoa litzateke, talde horietako ordezkarien iritziz. Populazio handiko tokietan, herri-lurrak eta bideak zaintzerakoan, adibidez, auzolanak indarrean segitzen zuela erantzun zitzaion, Tafallako kasuak erakusten zuenez.

Amaiur eta HB taldeetako ordezkariak auzolanari buruz herri bakoitzeko erakundeek erabaki behar zutela iritzizioten, betiere indarrean zegoen legediaren barnean, baina auzolana espazio berrietara zabaltzeko aukera emanez. Azken hori HBko bozeramaileak behin eta berriz defendatu

29. Ikus Eranskinak atala, 459. orrialdean, egunkariko artikulua hau agertzen baita.

zuen, eta landa-eremuko lan modua –auzolana– industrializatutako gizartean txertatzea proposatu zuen. Haren hitzetan, auzolana parte hartzeko sistema bat gehiagotzat har zitekeen, «are gehiago orain dugun bezalako krisi uneetan». 1980an ere krisian baitzeuden.

UCDren bozeramaileak –Rafael Gurreak, gerora UPNN sartu eta Parlamentuko lehendakaria izanen zenak– auzolana bertze lan batzuetara zabaltzearen aurka agertzeko, honako hau botu zuen: «Horietako asko ez dira behin ere *auzalanean* egin, eta baten batek orain *auzalanean* egiteko tentazioa izan dezake». Parlamentari horren ustean, auzolana arautzeko eskumena herrien esku uzteak ekar zezakeen arazoetako bat herri-zaintza ere modu horretan egin nahi izatea litzateke; hau da, udaltzainen beharrik gabe. Segur aski hori ez zegoen inoren burutan, eta legeek ere ez dute horretarako aukerarik ematen, baina ez da ideia txarra Gurreak botu zuena...

Pertsonaia horrek Parlamentuan erran zituenekin segituz, auzolanean egindako lan batzuk «bi edo hiru aldiz garestiago» ateratzen zirela, kontratatutako profesionalak egindako lana hobea zela eta «emakumeak eurentzat batere egokiak ez diren lanak egiten aritu direla» ziurtatu zuen. Egunkariak azaltzen duenez, Agoitzen garai hartan egin ziren komunitate-lan batzuei buruz ari zen Gurrea.

Baina gehiagorako ere badu; haren hitzetan, historikoki auzolanik ez da izan hiriguneetan, eta lan modu hori erabili izandako garaietan ez omen zegoen errepide asfaltaturik. Nondik atera ote zuen asmatu ezin dugun bertze datu bat honakoa da: haren ustean, agerian zegoen hiri-eremuetan zein ekimenek huts egin duten, izan ere, «60 urte aurrerago dauden herrialdeei begiratzuz gero, bost mila biztanletik gorako hirietan *auzalanak* eta gisako sistemak porrot egin dute», erran zuen Gurreak, egunkariaren arabera.

Auzolana «60 urte aurrerago dauden herrialdeetan» egin delako berririk ez dugu. Gurreak auzolana eta xx. mendearen bigarren erdian Mendebaldeko gizarteak sortu duen *lan*

komunitarioa gauza beratzat jotzen dituela pentsa dezakegu, baina interesatzen zaionean bakarrik; nahi duenean, auzolana nekazari-munduari estu lotuta dagoela baieztatzen du –eta hori ez da hala *lan komunitarioari* dagokionez–.

Agoitzeko kasua aipatzen du auzolana gutxiesteko asmoz. Lan komunitarioak eta auzolanak *komunitatearen alde egiten den lana* izatea dute oinarri, baina ezberdintasuna sakona da; bakoitzaren sustraiak guztiz ezberdinak izateaz gainera, antagonikoak direla ere baieztatu dezakegu: auzolana herritarren ekimena da, bai bere sorreran, bai eta azken hamarkadetan agertu zaigun kasuetan ere, nahiz hainbat herritan ordenantzek arautzen duten eta horregatik tokian tokiko erakundeak arduratzen diren horiek erregulatzeaz eta betearazteaz.

Lan komunitarioa, aldiz, gobernu-egiturek –udalek nahiz lurraldeko gobernuak– giza talde jakin bati ezartzen dioten egitasmoa da, giza talde horrentzat beharrak sortzearen erantzule diren heinean, horiei konponbidea emateko asmoz hartzen den neurria. Nolabait azaltzearren, zera erran dezakegu: langabezia goi-erakundeen administrazio eskasaren ondorioa den heinean, horiek dira langabeei lana ematearen arduradunak. Lan komunitarioa goi-erakundeek zigor gisa ere ezartzen dutela oroitu behar dugu. Beraz, sistema horrek auzolanarekin ez du deus ikustekorik.

3.2. Auzolana hainbat herritara bueltatu da

Aitzineko atalean, gabeziei erantzuteko modu gisa aurkeztu dugu auzolana; hau da, boterea zentralizatua –eta, beraz, herriarentzat geroz eta urrunagoa– denez, herriari horrek sortzen dizkion arazoei aurre egiteko auzolana berreskuratu egin behar izan da. Bertze kasu batzuk ere aipatu ditugu, zuzenean gabeziei erantzuteko egin ez badira ere, administrazioak bere gain hartzen ez dituen lanak egiteko izan direlako. Atal honetan ildo horri segituko diogula erran daiteke, nahiz eta bertzelako kasu batzuk azal-

duko ditugun. Etxalarren, 2010. urtean, Udalak auzolana berreskuratzeko ordenantzak proposatu zituen, baina ez da oinarrizko azpiegiturak ordaintzeko baliabiderik ez duelako, antzinako lan modu hori berreskuratuz, herritarrak herria zaintzeko lanean parte-hartzaile egin nahi dituelako baizik.

Elizondon ere (Baztan) 2010ean auzolan-tailerra antolatatu zuten, mendiko sasiak garbitzeko. Hemen bildu dugun bertze kasua Gasteizko Alde Zaharrean abiatutako ekimena da, auzoa auzolanean moldatu eta dinamizatzeko asmoa duena. 2009. urtean abiatu zen, eta herrialdeko hiriburua izanik, berezia deritzogu adibide honi.

Horiekin batean, bertze hainbat adibide azalduko ditugu. Hemen jaso ez ditugun arren, aipatzekoa da herri batzuetan gaur egun indarrean dauden auzolanaren ordenantzak aurkitu ditugula, bertzeak bertze, Araban eta Nafarroan: Olaeta, Arroiabe, Erroeta eta Pagoeta Araban, Unanu eta Lizarraga-Ergoiena Nafarroan...³⁰. Modu berean, hainbat herritan lan jakin batzuk egiteko auzolana erabiltzen dela jakin dugu: Zubietan (Nafarroa), adibidez, Aingeru Itturri txukuntzeko eta moldatzeko, Udalak auzolana egiteko asmoa zuen 2010. urtean, erabat utzita eta hondatuta baitzegoen. Erratzun (Baztan, Nafarroa Garaia), urte berean gazteek auzolana berreskuratu zuten, eta, bertzeak bertze, aisialdi-gune bat prestatu zuten. 2010eko udaberrian, halaber, Berako (Nafarroa Garaia) Agerra auzoan pilotalekua konpontzeko lanak ere auzolanean egin zituzten.

3.2.1. Auzolana Etxalarren

Etxalar Nafarroan dago, Bortzirriak eskualdean, eta 820 biztanle inguru ditu. Joan den mendea arte, auzolanean

30. Ikus Eranskinak atala, 461. orrian: Pagoetako auzolanari buruzko Ordenantzak eta *Concejo de Lizarraga-Ergoiena sobre Ordenanzas del auzolan*.

eraikitzen edo moldatzen ziren herriko hainbat azpiegitura, eta edo herri-lurretan landatzeko zuhaitzak hazten ziren mindegietako lanak ere halaxe egiten ziren. 1950-1960 urteetan hasitako industrializazioak, baserriko bizimoduaren gainbeherarekin batean, bizimodu berria ekarri zuen, eta herriko lanak bertze modu batzuetan egiten hasi zirenean, auzolanak egiteari utzi zioten.

Baserritar batzuek hainbat bide garbitzen segitu dute gure egunetaraino, baina ezin da lehenagoko auzolanarekin alderatu, hark zuen tamaina aunitzez ere handiagoa baitzen. Urte batzuen buruan, herriko auzo bateko bizilagunak, Iñarretakoak, auzoko karririk garbitzeko elkartzan hasi ziren, eta ohitura hori herriko gainerako auzoetara ere zabaldu zen. Bertze hainbat jarduera ere *auzolantako* kontatu ziren: Larraburua Zahar Etxea irekitzean, bertako platerak eta gainerako ontziak garbitzen aritu ziren hainbat emakume, eta horrela, urte horretako auzolana egina zutela aitortu zitzaion.

1990eko hamarkada arte iraun zuen karrika bazterrak auzolanean garbitzeko ohiturak. Gaur egun, Udalak kontratatutako langileek egiten dute lan hori, lana bilatzeko arazoak dituen jendeari eskaintzen zaion aukera baita. 2010. urtean, indarrean jarri ziren auzolana arautzeko ordenantza berriak, eta hala azaldu ziguten bertan: «Berriz ere martxan jarri nahi dugu auzolana, nahiz eta batzuek lehendik segitzen duten ohitura horrekin».

Etxalarren auzolana xx. mendeko azken hamarkadetan nolakoa zen azaldu dugu, baina lehenago gertatuak jakiteko ere datu batzuk baditugu: 2009an argitaratu zen herriko apezka den Pello Apezetxearen *Etxalarren historiako zenbait jakingarri* liburua, eta tartean, auzolanari buruzko hainbat datu jaso ditu egileak.

Liburuak auzolanari buruz dakarren lehendabiziko datua 1686. urtekoa da, eta honela dio: «Landareak, herriko mendietan, urtarrileko ilbeheran paratu zituzten, auzolanean, herriko saltzaileei erosiak edota mendietatik atereak». Mindegiko lanei buruz ari da, beraz. Neguan egiten ziren

mindegikoak, eta udaberrian, berriz, bideak garbitzekoak edo moldatzekoak. Mindegikoen lana zinez garrantzitsua izan da Etxalarren; herriaren ondasun nagusietakoa izan da oihana, bertzeak bertze, burdinolek behar zuten ikatza herriko oihanetan egin izan baita (hainbat mendez, jarduera garrantzitsua izan da burdinolena). Ikatza egiteko zuhaitzei adarrak mozten zitzaizkien (trasmotxoak), eta bertzelako gauzetarako zuhaitza bota behar izanez gero, zuhaitz berri bat landatu behar izaten zen.

Goiago aipatu dugunez, landare horiek hazteko, auzo gehienetan mindegiak izaten ziren, auzolanean egin, moldatu eta zaintzen zirenak. Apezetxearen lanean jasotzen denez, 1852. urteko akta batek honela dio: «Badira zazpi mintegi, paretaz inguratuak, non 120.000 haritz eta gaztaina landare diren. Beraietatik 3.000 haritz eta gaztaina landare sartzen dira mendian urtero. Badira zuhaitz handiko 30 saroi, soilik etxe berriak eraikitzeko eta zaharrak konpontzeko erabiltzen direnak. Gainera egurretarako eta burdinolarako ikatza egiteko erabiltzen diren hauetakoak ere badira: xarak, haritzak, gaztainondoak, bagoak eta altzak. Baita hainbat motatako intxaurrondo eta gereziondo ere. Hauen fruituak beharrean bizi den jendeak probexten ditu, batez ere». Akta horren bidez asma dezakegu zenbateko garrantzia izan duten, historikoki, mindegi horiek.

XVIII. mendean herritarrek zituzten arazo ekonomikoen berri ematen da, eta honako datua ageri zaigu: «Jendearen larritasuna arindu behar zela eta, auzolana egiten zuenari erreal bat ordaintzeko baimena eskatu zuten Batzarreko bilkuran». Mende horretakoak diren bertze datu batzuek, mendietan landatzen ziren zuhaitzei buruzkoek, auzolanak segitzen zuela adierazten digute: 1765. urteari buruz jasotakoan, urtero «ohituraz familia bakoitzak hiru arbola plantatzen zituela» jakinarazten da. Mindegietako *zerrakurak* –itxiturak– jendeak bere kontura mantentzen zituela eta kalteak izanez gero denen artean ordaintzen zituztela ere erraten da liburuan.